

## ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ARRETA GOIZTIARREKO ITUN SOZIALA EZARTZEKO OINARRIAK

### AURREKARIAK

Dokumentu honen xedea da arreta goiztiarreko zerbitzuaren itun sozialaren araubidea arautu behar duten administrazio baldintzak eta baldintza teknikoak ezartzea. Arreta goiztiar hori, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren onuradunentzat izango da, betiere Foru Aldundia titularra den zentro publiko batean artatu ezin badira.

Modalitate hori hartu da 2014/24/EB Zuzentarauan ezarritako printzipioak kontuan hartuta. Izan ere, 114. oinarrian hauxe adierazten du: “Estatu kideek eta botere publikoek orain ere askatasuna izango dute beren kabuz zerbitzu horiek emateko edo gizarte-zerbitzuak antolatzeke, kontratu publikoak egin beharrik gabe; esate baterako, zerbitzu horien finantzatze soilaz edo botere adjudikatzaileak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanaz, mugarik edo kuotarik gabe, baldin eta sistema horrek behar adinako publikotasuna bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen baditu”. Dicho sistema venía avalado asimismo por lo dispuesto en la base 11.6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se trasponen al ordenamiento jurídico español la Directiva del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/24/UE, de 26 de febrero, anteriormente citada.

Itun sozialaren araubidea neurri handi batean justifikatzen dute, besteak beste, gizarte zerbitzuen ezaugarriek, gizarte integrazioa autonomiarekin lortzeko harreman laguntza gisa, eta horiek emateko betebeharrak, zein interes orokorreko gainerako gizarte zerbitzuek, modu unibertsal eta solidarioan, behar bezalako kalitate eta kostu egokiarekin; baita ekimen pribatuko sare bat izateak ere, gizarte arlokoa bereziki, berezko baliabideekin eta lortu nahi diren kalitate estandarrekin bat datorren arreta koherentearekin, erkidegoko ereduaren arabera. Araubidea bermatzen dute, besteak beste, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuetakoak, itun araubidea ezartzen baitu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuak hornitzeko bide arrunt gisa.

Horrela, azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituenak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuen katalogoko zerbitzuak ituntzeko araubide orokor eta komun bat arautzea du xedetzat. Katalogo hori Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan ezartzen da. Bereziki, ekimen pribatuko erakundeekin plazak ituntzeko, beste zerbitzu batzuek gain prestazio teknikoak ematen dituzten zentroetan. Y, adicionalmente, en el marco de la gestión integral, otros servicios de dicho catálogo dirigidos a todas, o parte, de las personas usuarias del centro o centros concertados.

Sektorea kontuan hartuz, lege hauen arabera ezarri da itun hori: 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, gizarte zerbitzuetakoak; abenduaren 14ko 39/2006 Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa; abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua, autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituenak, eta 291/2015 Errege Dekretuaren bidez egindako haren geroko aldaketa. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluak uztailearen 22an ezarritako 36/2014 Foru Dekretua



eta haren geroko aldaketak garatzen ditu. Dekretu horrek arautzen du mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta egoera horietan Arabako Gizarte Zerbitzuen zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere. Horrela, Arabako Lurralde Historikoan Arreta Goiztiarreko Zerbitzu Publikoaren esku hartzeen ematea arautzen duen foru dekretu bat onesteko lan egiten ari da.

Arautegi hori funtsezkoa da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jarduera garatzeko, eta baita beste dekretu hauek ere: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bidez desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen den; urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa; eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna.

Zehazki, arreta goiztiarraren arloan, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, gizarte zerbitzuetakoak, arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzua barne hartzen du EAEko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan. Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoak, "Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua" jaso eta definitzen du I. eranskineko 2.7.4. fitxan. Azkenik, otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzkoak, oinarritzko arauak ezartzen ditu, Euskadin, arreta goiztiarraren arloan, eragindako sektore guztiek, eta beraz, gizarte zerbitzuek, garatzen dituzten esku hartzeak antolatzeko eta koordinatzeko.

Arautegi horren barruan, itun araubideak, soziala deritzotena esku hartze sozialaren esparruan egoteagatik, eta hezkuntza itunetik bereizteko, interes orokorreko edozein gizarte zerbitzuek bezala, zenbait parametreri erantzun behar die, hala nola, egokitzapen edo kalitate, unibertsaltasun, elkartasun eta eraginkortasun ekonomikoko parametroei, beren buruari exijitzen diotenak. Horrez gain, tratu berdintasunaren printzipioari ere jarraitu beharko diote, eta xede horretarako, plazak, eta hala badagokio, zerbitzuak, ituntzea ekartzen duen hautaketarik gabeko prozedura bat gaitzen da, sarbide baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiekin. Hasteko, eskubidea aitortuta duten pertsonak jadanik beteta edo esleituta dituzten plazak itundu behar dira, bazterketaren arloan ezarritako salbuespenekin, eta diskriminazio positiboko irizpideak erabiliz, baldin balego, gainerako plazak esleitzeko.

Ez hautatzeko printzipioa bat dator abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuetakoak, 7., 8. eta 9. oinarrietan ezartzen dituen printzipioekin, arreta ereduarekin eta erabiltzaileen eskubideekin. Zehazki, erabiltzaileek duten eskubidearekin, hots, eskuragarritasunaren arabera, beren kasurako zerbitzu-mota eta -modalitatekin egokiena askatasunez aukeratzeko eskubidearekin, esleitutako erreferentziazko langilearen orientazioari eta agindu teknikoari jarraikiz. Horrela, zentzuzkoa da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen printzipioen, arreta ereduaren eta eskubideen arabera, pertsonak erabiltzaile diren zentroan jarraitzeko aukera izatea, betiere administrazioak eskubide hori onartu badie eta plaza esleituta badute, zentroaren esleipena aldatzen ez den bitartean, edo, hala badagokio, administrazioaren eta erakundearen arteko lankidetzara amaitzen ez bada.



Halaber, haurren babes arloan indarrean dauden legeak aplikatu behar dira, besteak beste, 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena; 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoarena; 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko sistema aldatzeko, eta 1110/2015 Errege Dekretua, abenduaren 11koa, Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala arautzen duena. Berdintasunaren arloan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoari, eta haren EAEn haren baliokidea den Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuari buruz hitz egin behar dugu. Bestalde, datu pertsonalen babesari dagokionez, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa daukagu, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, eta haren garapena.

Honako hauek osatzen dituzte oinarriak:

- Administrazio oinarriak 3. or.
- Oinarri teknikoak 27. or.
- Xedapen gehigarriak 40. or.

## **ADMINISTRAZIO OINARRIAK**

### **I. KAPITULUA**

#### **XEDEA, APLIKAZIO ESPARRUA ETA PRINTZIPIOAK**

##### **1. oinarria. – Oinarri hauen xedea.**

Oinarri hauen xedea da Arabako Lurralde Historikoan arreta goiztiarreko esku hartze jakin batzuen itun araubidea arautzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan. Adierazitako gizarte zerbitzuaren emateko, oinarri hauetan jasotzen diren baldintzei jarraitu beharko zaie.

2.7.4. Fitxak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen zorroari buruzkoak, honako hauek barne hartzen ditu arreta goiztiarreko zerbitzuaren prestazio gisa:

Gizarte zerbitzuak	Informazioa
	Orientazioa
	Balorazio espezializatua eta jarraipeneko balorazioa
	Gizarte-hezkuntzako esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala.
	Laguntza soziala
Osasuna eta hezkuntza	Informazioa. Diagnostikoa. Balorazioa. Orientazioa. Kontu-hartzailtza

Horietatik, itunpeko erakundeek gizarte-hezkuntzako esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala bakarrik egingo dituzte, hau da, psikoestimulazio, fisioterapia eta logopedia arloko esku-hartzeak, otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoak, 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.



Zerbitzu hori, arreta goiztiarreko esku-hartze taldeek (AGET, aurrerantzean) egingo dute, otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan arreta goiztiarrean esku-hartze osoa eskaintzeari buruzkoak, 13. artikuluan araututakoak, eta aipatutako dekretuaren IV. Kapituluaren adierazitako parametroak betetzen dituzten haurren garapeneko eta arreta goiztiarreko zentroetan (HGAGZ) garatuko da.

Horrez gain, oinarri horien xedea da itunpeko zentro pribatuen jarduketa baldintzak arautzea, itun sozialeko araubidearen alderdiak, eta sarbide baldintzak, gehieneko iraupena, itunak amaitzeko arrazoiak eta alderdien betebeharrak bereziki ezartzea.

## **2. oinarria. – Aplikazio eremua.**

Oinarri hauen mendeko itun sozialak izango dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE, aurrerantzean) —Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailari atxikitako erakunde autonomoak— eta interesa duten ekimen pribatuko erakundeek euren artean egindakoak, betiere arreta goiztiarreko zerbitzua hornitzeko sarbide baldintzak betetzen badituzte, ezarritako modalitateetan, Arabako Lurralde Historikoan aritzeko baimena badute. Salbuespen gisa, Gasteiztik 35 kilometro baino gehiagora dauden udalerrietan bizi diren pertsonak, adierazitakoa baino distantzia gutxiagora Arabako Lurralde Historikoan joan ahal diren bestelako HGAGZrik ez badago, mugako autonomia erkidegoetako edo lurralde historikoetako HGAGZetan artatuak izango ahalko dira.

Arabako Lurralde Historikoan, gaur egun, haurren garapeneko eta arreta goiztiarreko zentro bat dago. Kudeaketa pribatua du, baina erantzukizun publikokoa da eta titularra Foru Aldundia. Prozedura honen ondorioz sortutako erakunde berriak foru titulartasuneko zentroari gehituko zaizkio, gehigarri gisa, une bakoitzean dauden beharrei erantzuteko.

Itunpeko zentroaren hautaketari dagokionez, eskuragarri dauden itunpeko plazen artean egingo dute erabiltzaileek edo haien legezko ordezkariak, betiere zentro publikoan plaza librerik ez badago.

## **3. oinarria. – Ituntzearen xedea.**

1.- Ituntze honen xedea da arreta goiztiarreko esku-hartze zerbitzua hornitzea, otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoan, aplikatzekoa den gainerako arautegian,<sup>1</sup> eta oinarri hauetan ezarritakoaren arabera. Zerbitzu hori, horretarako onartutako eskubidea duten pertsonen zuzenduko zaie, eta arreta goiztiarreko banakako programaren arabera, esku-hartze mota bakoitzerako beharrezkoa den saio kopurua esleituko zaie, GOFEk berak egindako balorazio prozesu baten ondoren.

2.- Argiago gera dadin, oinarri hauen ondorioetarako, kontzeptu baliokidetzat hartzen dira “arreta goiztiarreko banakako programa” —dokumentu honetan eta eranskinetan jasotzen den kontzeptua— eta “banakako arreta plana” —indarreko arautegian jasotzen den kontzeptua—.

---

<sup>1</sup> Arabako Foru Aldundia bere arautegia onesteko izapideak egiten ari da.



Bestalde, ituntze horren xedea egoitza zerbitzua ematea ez denez, baizik eta zerbitzu hutsa, kontzeptu baliokidetzat hartzen dira “plaza” —azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari ituntze sozialeko araubidea eta hitzarmenak arautzen dituena— eta “saioa”, pertsonak arreta goiztiarreko banakako programaren arabera eskatzen duen esku-hartze mota edozein dela.

3.- Erakunde batekin egindako itun sozialaren xedea da erabiltzaileei zuzendutako saio kopuru bat gordetzea, 4. oinarrian eta dokumentu honen ezarritako baldintzetan definitzen diren moduan.

Horrez gain, oinarri hauen xede den arreta zerbitzuaren espezialitatea dela eta, zerbitzua modua heterogeneoan eman daiteke, bai saio kopuruari, bai eskatutako esku-hartze motari dagokienez.

4.- Aurreko urteetan lortutako datuak aintzat hartuz, ituntze horrek ekar dezakeen urteko negozioaren bolumena errazago kalkulatzeko, ituntzearen xede den eremu geografikoan urtero ituntzeko saioen gehieneko kopuru hau balioesten da, aurkitutako beharren eta gizarte zerbitzuen plangintza estrategikoaren arabera:

	Saio kopurua, guztira	Gasteiz	Gasteiztik kanpo
Heldutasun garapenaren estimulazio orokorra (60 minutu / saioa)	3.245	500	2.745
Fisioterapia (60 minutu / saioa)	910	150	760
Logopedia (35 minutu / saioa)	15.140	13.000	2.140

Esandakoa, gutxi gorabeherako kopurua da, inola ere bermea, zerbitzu honen ezaugarri bereizietako bat onuradun bakoitzaren beharrei egokitzen dela baita, arreta goiztiarreko banakako programan aurreikusitakoaren arabera.

#### **4. oinarria. – Esparru subjektiboa: hartzaileak eta erabiltzaileak.**

1. Arabako Lurralde Historikoan arreta goiztiarreko zerbitzu publikoaren hartzaileak dira otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoan, 4. Artikuluan adierazitako pertsonak, Arabako Foru Aldundiaren eskumenari dagokionean, GOFeren bidez, osasun eta hezkuntza sistemekin lankidetzan eta koordinazioan.

Adierazpen gisa, ituntze honen esparru subjektiboaren barruan barne hartzen dira garapenean arazoak dituzten eta horiek izateko arriskuan dauden 0 eta 6 urte bitarteko haurrak, betiere arreta goiztiarra baloratzeko taldeak (AGBT aurrerantzean) bideratzen baditu, esku hartzeko jarraibidearekin.

Garapenean nahasmenduak dituzten haurtzat hartzen dira osasun edo harreman gertaeren ondorioz garapenean desbideratze esanguratsuak dituztenak, eboluzio biologiko, psikologiko eta soziala arriskuan jartzen badute. Alterazioak edo nahasmenduak hainbat motatakoak izan daitezke: kognitiboak, motorrak, sensorialak, emozionalak, portaerazkoak, hizkuntzari dagozkionak, orokortuak, adierazpen somatikokoak edo heldutasun atzerapenak.



Honako hauek dira garapenean nahasmenduak izateko arrisku egoeran dauden haurrak:

- Arrisku biologikoko egoeran dauden haurrak, hau da, jaio aurreko, jaiotza inguruko edo jaiotza ondorengo aldian, edo garapen goiztiarrean, heldutasun prozesua alda dezaketen egoerak pairatu dituztenak, hala nola goiztiartasuna, pisu baxua edo jaiotzako anoxia; baita sortzetiko edo hartutako gaixotasunak edo alterazio genetikoak dituztenak ere.
- Arrisku psikosozialeko egoeran dauden haurrak, hau da, baldintza sozial ez-egokietan bizi direnak, hala nola guraso eta familiarekiko zaintza edo harreman egokien falta, tratatu txarrak edo abusuak jasaten dituztenak, egoera horiek guztiek heldutasun prozesua alda dezaketelako.

2. Arreta goiztiarreko zerbitzuaren erabiltzaile dira GOFeko Kudeaketako Zuzendaritzaren ebazpen bidez hala izendatutako pertsonak, indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorritik. Ebazpena, kasu bakoitzean, erabiltzailearen ordezkariari jakinaraziko zaio.

Beraz, zerbitzuaren erabiltzaile izaera eskuratu eta galtzeko erabakia GOFeri dagokio, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Izaera hori eskuratzeari buruzko ebazpenarekin batera eranskin bat aurkeztuko da. Hor, arreta goiztiarreko banakako programa zehaztuko da, eta, hala badagokio, foru administrazio honekin itundutako HGAGZren zerrenda ere jasoko da, prozedura honen emaitza gisa.

Itundutako zerbitzuaren xede diren saiok GOFek izendatutako pertsonentzat soilik izango dira. Aukeratutako erakundeek hitzematzen dute GOFek dagokion ebazpenean eskubide hori aitortu dien zerbitzuaren onuradunak onartzeko.

## **5. oinarria. – Itunaren eta ituntze prozeduraren printzipio informatzaileak.**

1. – Ituna egiten duen administrazio publikoak eta itundutako erakundeek honako printzipio hauek beteko dituzte:

a) Erantzukizun publikoa, beraz, GOFeren eskumena izango da plazak eta itundutako zerbitzuak finantzatzea, eskuratzea, haien jarraipena egitea eta kontrolatzea.

b) Berdintasuna eta ekitatea, beraz, pertsona guztiei beren beharretara egokitutako arreta bermatuz, halako moldez non zerbitzueterako eskubidearen titularrei ez baitzaie aldatuko beren eskubidearen erabilera, irismena edo edukia, emandako zerbitzuak kudeatzeko modua edozein dela ere.

c) Aurrekontu oreka, egonkortasuna eta efizientzia, herritarren eskubide subjektibo gisa konfiguraturako zerbitzuak sendotu eta garatzeko.

d) Arreta pertsonalizatua, jarraitua, integrala, hurbilekoa, prebentiboa eta parte-hartzailea, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 7. eta 8. artikuluetan definitutako printzipio eta komunitate ereduaren arabera, baita GOFek ezarritako kalitate estandarren arabera ere, erreferentzia gisa hartuta Europar Batasuneko Gizarte Babeserako Batzordearen Gizarte Zerbitzueterako Kalitatearen Europako Borondatezko Esparrua edo hura ordezkatzeko duen tresna.



e) Erabiltzaileek zerbitzuan borondatez jarraitzea, oinarri hauetan definitutako kasuetan, eta zerbitzua aukeratzeko prozesuan parte hartzea, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 7. artikuluan eta 9. artikuluko j) eta k) letretan ezarritakoaren arabera.

2. – Era berean, itun prozedurak printzipio hauek bete beharko ditu:

a) Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza erakunde eskatzaileen artean; beraz, sarbide baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartuko dira.

b) Publizitatea eta gardentasuna; horrela, deialdi hau eta deialdia bera izapidetzeko funtsezko elementuak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

## **II. KAPITULUA**

### **ITUN ARAUBIDEA ESKURATZEKO, PLANIFIKATZEKO ETA FINANTZATEKO BALDINTZAK**

#### **6. oinarria. – Gizarte itunaren araubidea eskuratzeko baldintzak eta ituntzeko ahalmena.**

1. – Ekimen pribatuko erakundeek ituntzeko ahalmena izango dute honako baldintza hauek betetzen badituzte::

- a) Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 59. artikuluan eta hura garatzen duen araudian ezarritako erregistro inskripzio, baimen eta homologazio baldintzak. Arabako Lurralde Historikoan kokatutako zentroen kasuan, egiaztapena GOFEk eskatuko du, ofizioz.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren 13. Artikuluan, IV. kapituluan, eta hura garatzen duen araudian ezarritako baimen, erregistro eta homologazio baldintzak. Arabako Lurralde Historikoan kokatutako zentroen kasuan, egiaztapena GOFEk eskatuko du, ofizioz.

2. – Itun-araubidea eskuratu ahal izateko, azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituenak, 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erakunde eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Itundu nahi diren zerbitzuen hartzaileen antzeko beharrak dituzten pertsona, familia edota taldeei etengabeko arreta eman dietela egiaztatzea (arreta-jarraitutasuna). Egiaztatze modua 6. oinarri honen 3. puntuan azaltzen da.

b) Deialdiaren antzeko zerbitzuetan komunitate lanean esperientzia dutela egiaztatzea, lurralde bateko sistema publikoekin, erakundeekin, baliabideekin eta ekimenekin lankidetzan edo elkarlanean arituz, arreta integralagoa, jarraituagoa, pertsonalizatuagoa eta hurbilagoa bermatzeko, edo hartzaileen prebentzioa eta parte-hartzea sustatzeko ere, komunitate ereduaren arabera. Egiaztatze modua 6. oinarri honen 3. puntuan azaltzen da.

c) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko behar adinako bitartekoak eta baliabideak dituztela egiaztatzea. Egiaztatze modua 6. oinarri honen 3. puntuan azaltzen da.



- d) Erakundearen izaera juridikoaren eta itun honen xede den zerbitzuaren arabera, oro har edo modu espezifikoan aplikatzekoa zaien araudia betetzen dutela egiaztatzea. Egiaztatutzat hartuko da 6.1. oinarrian ezarritakoa betetzen bada.
- e) Zentroaren titulartasuna dutela edo hura erabiltzeko eta gozatzeko eskubide erreala dutela egiaztatzea, itunaren indarraldia baino laburragoa ez den epe baterako, eta jabearen baimena izatea itunaren xederako bideratzeko. Egiaztatutzat hartuko da 6.1. oinarrian ezarritakoa betetzen bada.
- f) Bere antolamenduan, funtzionamenduan eta esku-hartzean berdintasun printzipioa guztiz errespetatuz jarduten duela egiaztatzea, genero ikuspegia eraginkortasunez integratuz eta helburu horri zuzendutako berdintasun neurriak edo planak antolatuz, bereziki bizitza familiarra eta lanekoa kontziliatzeko neurriak. Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 3. puntuan azaltzen da.
- g) Zentroaren hartzaile edo erabiltzaile diren pertsonen eta, hala badagokio, familiei arreta pertsonalizatua eskaintzen dietela egiaztatzea, laguntzak kasu bakoitzera egokituz, itundu beharreko zerbitzua erakundeak eskaintzen edo ematen dituen beste zerbitzu eta jarduerekin konbinatuz, eta hirugarrenekin koordinazioan edo lankidetzan jardunez (arretaren pertsonalizazioa). Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 3. puntuan azaltzen da.
- h) Zentroaren hartzaile edo erabiltzaile diren pertsonen eta, hala badagokio, familien parte-hartzea sustatzen dutela egiaztatzea, bai erakundearen, zentroan eta jardueretan, bai banakako/familiako esku-hartze prozesuan (hartzaileen parte-hartzea). Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 3. puntuan azaltzen da.
- i) Erakunde eskatzaileen zerga egoitza dagoen zerga administrazioak emandako ziurtagiria eta zergapeko jarduerak egin diren zerga administrazioek emandakoak aurkeztea, bere zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen dutenak.
- j) Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren ziurtagiria aurkeztea, erakunde horren kuoten ordainketan egunean egotea ziurtatzen duena.
- k) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria, eta V. eranskinean jasotzen den zerga horren matrikulatik baja eman ez dutela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea. Salbuespena egonez gero, salbuespenaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- l) Epai irmo bidez kondenarik jaso ez izana, honako delitu hauengatik: terrorismoa, antolakunde edo talde kriminal bat eratu edo integratzea, elkartzeko ez-zilegia, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa, gizakien salerosketa, negozioetako ustelkeria, eragimen-trafikoa, funtzionario-eroskeria, iruzurrak, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak, langileen eskubideen kontrako delituak, prebrikazioa, funtzionarioei debekatutako negozioak eta jarduerak, bidegabeko eralgitzea, kapital-zuriketa, lurraldearen antolamenduaren, hirigintzaren, ondare historiko eta ingurumenaren babesaren arloko delituak, edo lanbide, ogibide, industria edo merkataritzan aritzeko gaitasuna bereziki kentzeko zigorra. Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 5. puntuan azaltzen da.



m) Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, osotasuna zalantzan jartzen duen lanbide arloan egindako arau-hauste astunagatik, merkatu diziplinaren, lehia faltsutzearen, laneratze eta aukera berdintasunaren eta desgaitasuna duten pertsonen diskriminaziorik ezaren arloan, edo atzerritartasunaren arloan, behin betiko zehapena jaso ez izana; ezta ingurumen-arloan arau-hauste oso astunagatik ere, indarrean dagoen araudiaren arabera; edo lan nahiz gizarte arloan arau-hauste oso astunagatik, Gizarte Ordenako Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginak, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, ezarritakoarekin bat etorritik, baita aipatutako testuaren 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste astunagatik ere; edo otsailaren 20ko 2/2023 Legeak, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, ezarritako arau-hauste oso astunagatik; edo sexu orientazioaren eta identitatearen, genero adierazpenaren edo sexu-ezaugarrien ondoriozko tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan egindako arau-hauste astun edo oso astunagatik, otsailaren 28ko 4/2023 Legeak, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoak, ezarritako debekua ezarri denean. Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 5. puntuan azaltzen da.

n) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa adierazteko eskaria egin ez izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez izana, hartzekodunen konkurtsoan deklarata ez egotea –konkurtso horretan hitzarmen bat ezarri bada, edo ordainketen erabaki estrajudizialeko espedientea hasi bada salbu–, epailearen esku-hartzearen menpe ez egotea, edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta ez egotea, epaian finkatutako desgaitze epealdi hori oraindik amaitu gabe egonik. Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 5. puntuan azaltzen da.

ñ) 50 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, langileen ehuneko 2 gutxienez desgaitasuna duten langileak izatea, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaituen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan; edo, 50 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrikoak, 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, berdintasun plan bat izateko betebeharra betetzea. Plan hori, dagokion lan erregistroan inskribatu beharko dute, salbuespenik ezean. Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 5. puntuan azaltzen da.

o) Administrazio publikoekin kontratatzeko debekurik, ezintasunik edo bateraezintasunik ez izatea. Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 5. puntuan azaltzen da.

p) 13. oinarriaren h) puntuan ezarritako aseguru betebeharra betetzea, eta, beraz, erantzukizun zibileko aseguruaren poliza eta haren azken ordainagiria aurkeztea.

q) Haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan 1. paragrafoak xedatzen duen legez, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten arreta goiztiarreko zerbitzuak emateko, nahitaezkoa izango da Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako edozein deliturengatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea, bai eta Zigor Kodearen VII bis tituluan tipifikatutako giza salerosketako edozein deliturengatik ere kondenatua ez izatea. Egiaztatzeko modua 6. oinarri honen 5. puntuan azaltzen da.



3.– Oinarri honetako bigarren paragrafoaren a), b), c), e), f), g) eta h) puntuetan ezarritako betekizunak erakundearen ordezkariak elektronikoki sinatutako idazki baten bidez egiaztatuko dira.

Idazkiak ez du 24 orrialde baino gehiago izan beharko alde bakarretik idatzita, edo 12 orrialde baino gehiago bi aldeetatik idatzita, Arial letrarekin.

10. Hortik aurrerako orrialdeak ez dira irakurriko. Eranskinak aurkeztu ahal izango dira, aipatutako muga gaindituz, baldin eta behar bezala zenbakituta, justifikatuta eta proiektuak irudiztatzeko soilik badira, hala nola txosten ereduak, prozedurak, tresnak, koordinazio fitxategiak eta organigrama.

Datu pertsonalen babesari buruzko araudiaren mende dagoen edozein informazio sentikor behar bezala bereizita egon beharko da.

Idazkiak nahitaez honako atal hauek izan beharko ditu, eta horietako guztiak ez sartzea baztertzeko arrazoa izango da:

- a) Oinarri honetako bigarren paragrafoaren a) puntuko betekizunari dagokionez, erakundearen ibilbidearen deskribapena, ahalik eta xehetasun handienarekin, ituntze honen xede diren zerbitzuak denboran jarraitutasunez eman direla erakusteko. Ez da nahikoa izango antzeko zerbitzuak ematen ari direla egiaztatzea; egiaztatu ere egin beharko da denbora-tarte jakin batean egin dela, hori erakusten duten dokumentuak aurkeztuz (adibidez, faktura anonimizatuak). Zerbitzua jarraitutasunez eman dela hartzeko gutxienezko epea 6 hilabetekoa izango da.
- b) b) puntuko betekizunari dagokionez, arreta goiztiarreko beste zentro batzuekin, esku-hartzearen erabiltzaileek parte hartzen duten hezkuntza esparruarekin, edota haien osasun esparruarekin izandako harremanen eta koordinazioen azalpena eman beharko da. Hori guztia, gutxienez, 6 hilabeteko epean. Harreman horiek badaudela erakusten duen dokumentazioa aurkeztuz egiaztatuko da; eta halakorik ezean, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, ituna egiten duen erakundeko ordezkariak eta epe horretan koordinatuta egon den hezkuntza edo osasun arloko erakundearen ordezkariak sinatuta.
- c) c), d) eta e) puntuetan ezarritako betekizunei dagokienez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzuari ofizioz eskatuko dio GOFEK prozedura honetan parte hartzen duen erakunde bakoitzaren baimen eta erregistro ziurtagiria. Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretua indarrean sartu ondoren baimendua izan bada, betekizuna betetzat joko da. Hala ere, baimena dekretu hori indarrean sartu aurretik eman bada, edo erakundea beste lurralde historiko edo autonomia-erkidego mugakide bateko erregistro baliokidean inskribatuta badago, dagokion erakundeak honako hau aurkeztu beharko du:

- Giza baliabideak. Eranskin gisa jasoko dira:
  - Arretaren arduradun izango diren langileen curriculumak eta prestakuntza, Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren 22. artikuluan eta uztailaren 16ko 110/2019 Dekretuan, arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluak, ikasketen eta kompetentzia profesionalen katalogoari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorrituz.



- Langileen lan kontratuen kopiak, bai eta ituntze honen xede diren esku-hartzeak gauzatzeko behar adinako giza baliabideak daudela egiaztatzen duten frogak ere.
  - Erakundearen organigrama, taldea nola egituratuta dagoen erakusteko, bereziki gizarte zerbitzuekin lotutako zereginak nola banatzen diren azpimarratuz.
  - Arretaren arduradun izango diren pertsonen Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa.
- Baliabide materialak. Dokumentuan bertan sartuko dira (ez eranskin gisa):
    - Zerbitzua ematen den lokalaren jabetza eskrituraren kopia edo haren alokairu edo lagapen kontratuaren kopia, bertan ikus dadin iraupena itun sozial honen berdina edo handiagoa dela.
    - Instalazio fisikoei dagokienez, zerbitzuak eskaintzeko duten egokitasuna neurtuko da, Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauen bidez: deskribapena (arreta zentroak, terapia gelak, bulegoak eta abar); instalazioen argazkiak eta espazioaren segurtasun edo egokitasun ziurtagiriak (adibidez, irisgarritasuna, segurtasun arauak eta abar).
    - Ekipamenduari eta materialei dagokienez, esku-hartzeak egiteko erabilgarri eta egoki daudela egiaztatuko da, Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera; honako hauen bidez: material pedagogikoa, terapiarako materiala, informatika teknologia, kasuak kudeatzeko software espezializatua eta abar.
- d) f) puntuko betekizunari dagokionez, erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ezarritako neurrien xehetasuna emango da; hartu diren kontziliazio politikena bereziki.
- e) g) puntuko betekizunari dagokionez, familiarekiko harremana eta koordinazioa nola bideratzen diren azalduko da; gurasoei jarduteko jarraibideak eta laguntza eskaintzen zaizkien ala ez, arreta prozesuan modu aktiboan parte hartu ahal izan dezaten eta etxean seme-alabaren garapenean lagun dezaten, eta, hala badagokio, zentroa ingurunean nola integratzen den ere azalduko da.
- f) h) puntuko betekizunari dagokionez, erakundeak erabiltzaileen eta familien parte-hartzea sustatzeko zer bide eskaintzen dituen azalduko da, bai erakundearen bizitzan, bai zentroan eta jardueretan; adibidez, gogobetetze inkesten, iradokizun postontzien eta bestelakoen bidez.
- 4.- i), j), k) eta p) puntuetan ezarritako betekizunak puntu horietan bertan ezarritako ziurtagiriak, polizak eta ordainagiriak aurkeztuz egiaztatuko dira.



5.- Oinarri honetako bigarren paragrafoaren l), m), n), ñ), o) eta q) puntuetan ezarritako betekizunak erakundearen ordezkariak elektronikoki sinatutako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko dira, deialdi honetako V. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Eskabide berari lotutako hainbat pertsona juridiko badaude, gutxienez erakunde batek bermatu beharko du betekizun horiek guztiak betetzen direla.

## **7. oinarria. – Itun araubidea planifikatzea eta finantzatzea.**

1. – Bere plangintza eta antolaketa eskumenen esparruan, GOFEk esku-hartzeen, eta hala badago, itundu nahi dituen plazen aurreikuspen bat egin du.

2. – GOFEk urteko aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa jaso du eta jasoko du urte anitzeko itun sozial honen baitan sinatutako programa kontratuetarako, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 67. artikularekin bat etorriz.

Deialdi honetarako aurreikusitako gehieneko aurrekontua 682.725,00 eurokoa da urteko, BEZik gabe; hau da, 1.365.450,00 euro indarrean egongo den bi urteetan. Zenbateko hori GOFeren aurrekontuko 81201.G/231811/22799847 “Esku-hartze Goiztiarreko Kontratua” aurrekontuko partidaren kontura ordainduko da.

3. – Zerbitzuaren edo zerbitzuen prezioak ituna egiten duen organoak kalkulatu ditu, zerbitzua espedientean eskatutako kalitate baldintzekin emateko kostuak kontuan hartuta. Horretarako, itun sozialeko prozedura hau prestatzeko egindako aurretiazko merkatu kontsulten emaitzatik abiatu da.

2026rako saio eta esku-hartze mota bakoitzeko modulu ekonomikoa honako hau izango da:

- Heldutasun garapenaren estimulazio globala (60 minutu): 55,00 euro (BEZ kanpoan utzita)
- Fisioterapia (60 minutu): 55,00 euro (BEZ kanpoan utzita)
- Logopedia (35 minutu): 30,00 euro (BEZ kanpoan utzita)

Erabiltzaileek dagokion itunpeko zentroarekin hitzartutako hitzorduetara justifikatutako absentziak badituzte, saioaren kostuaren % 75 ordainduko da, dagokion arreta goiztiarreko banakako programan agindutako tratamenduaren iraupenaren % 20 arte, gehienez. Ehuneko hori gainditzen bada, ez da inolako zenbatekorik ordainduko. Ondorio horietarako, absentzia justifikatutzat joko da esku-hartzera ez joatea mediku, psikologia edo hezkuntza hitzorduen, osasun-arazoaren edo bestelako arrazoien ondorioz. Ez joatearen arrazoia egiaztatzen duen dagokion dokumentua aurkeztu beharko da joaten den arreta goiztiarreko zentroan (adibidez: medikuaren ziurtagiria, ospitaleratze egiaztatzea, mediku hitzorduen egiaztatzea eta abar).

Justifikatu gabeko absentzien kasuan —25. oinarrian definitzen diren bezala—, saioaren prezioaren % 50 ordainduko zaie HGAGZei, oinarri horretan adierazitako gehieneko hutsegite kopurua bete arte. Nolanahi ere, justifikatu gabeko eta iraunkorra den asistentzia irregularraren aurrean, GOFeri txosten bidez jakinaraziko zaio, egoeraren jarraipena egin eta, hala badagokio, dagozkion neurriak hartu ahal izateko.



Saio eta esku-hartze mota bakoitzeko modulu ekonomikoa urtero ezarriko du GOFeren administrazio kontseiluak arreta goiztiarreko esku-hartze zerbitzuari dagokion modulu ekonomikoa gisa, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 66.2 artikuluan xedatutakoaren babesean.

4.- Agindutako saio kopurua eta haien modalitatea GOFek pertsona bakoitzarentzat onartzen duen arreta goiztiarreko banakako programan zehaztuko dira, eta itunpeko erakundeak programa horretara egokitu beharko du. Itunpeko erakundeak arrisku eta menturan jardun beharko du kontratua-programa exekutatzeko.

5.- 2027 eta 2028rako modulu ekonomikoa berrikusteko mekanismoa eskulan kostuen arabera egingo da, gutxi gorabehera prezioaren % 65. Kostu horiek Estatuko Aurrekontu Orokorren legetan funtzionarioentzat ezartzen diren lan baldintzen hobekuntzen arabera berrikusiko dira. Berrikuspena honako formula honen arabera egingo da:

$$M_n = M_{n-1} \times [1 + (0,65 \times \Delta S)], \text{ non:}$$

- $M_n$  aplikatzen den urteari dagokion modulu ekonomikoa den.
- $M_{n-1}$  aurreko urteko modulu ekonomikoa den.
- $\Delta S$  dagokion urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako funtzionarioen ordainsarien ehuneko aldakuntza den.

### III. KAPITULUA ITUNTZE PROZEDURA

#### 8. oinarria. – Prozeduraren hasiera, deialdia eta eskabideak aurkeztea.

1. – Ituna egiten duen organoa GOFeren Administrazio Kontseilua da. Berak onetsiko ditu oinarri hauek eta ebazpen erabakia, eta haren lehendakaritzari gaitasuna emango dio programa-kontratu bakoitza formalizatzeko.

2. – Oinarri hauen deialdiak publizitate eta gardentasun printzipioak beteko ditu, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez emango da ezagutzera.

3.- Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, prozedura honetan parte hartu nahi duten eta ezarritako betekizunak betetzen dituzten arreta goiztiarreko esku-hartze zentroek ituntze eskaera bana bidali ahal izango diote GOFeri, beren zentro bakoitzeko.

Eskaerak aurkezteko epea gehienez 30 egun naturalekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaera guztiak GOFeren Erregistro Elektronikoan aurkeztu beharko dira. Zentro bakoitzeko eskaera bat aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, beste zerbitzu batzuekin bideratutako kudeaketa integrala ere bai.

4.- Honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

- a) Oinarri hauetako II. eranskin gisa eransteko eskaera-eredua.
- b) Eskaera egiten duen erakundearen ordezkariaren nortasun-agiri nazionala eta dagokion ituntze akordioa formalizatzeko beharrezko jarduketak guztiak egiteko



ahalordea egiaztatzen duen dokumentazioa. Eskaera sinatzeko, ituntze-akordioa formalizatzeko beharrezko jarduketa guztiak egiteko ahalorde nahikoa duen ordezkariak sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatueta oinarritutako sinadura elektronikoa kualifikatu eta aurreratuko sistemaren bat eduki beharko du, “Ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzazko zerrendan” jasotako emaileek emana.

c) 6. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Arabako Lurralde Historikoan kokatuta ez dauden zentroyen kasuan, 6.2 oinarrian jasotako betekizunak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5.- Ituntze-prozeduran parte hartzeak oinarri hauetan jasotako guztia baldintzarik gabe onartzea dakar.

#### **9. oinarria. – Prozeduraren instrukzioa.**

1.- Prozeduraren instrukzio-unitate gisa Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloa izendatzen da.

2.- Egiaptapen teknikoko organo gisa Desgaitasuna duten Pertsonen Arloa izendatzen da.

3.- Erakunde interesdunek deialdiaren oinarrietan ezarritako moduan eta epean aurkeztu beharko dituzte eskaerak eta eskatutako dokumentazioa.

4.- Erakundearen eskaerak GOFEk aztertuko ditu. Halaber, beste pertsona batzuk ere sartu ahal izango dira, ituna egiten duen organoaren ebazpen arrazoituaren bidez, itundutako ekintzaren arloan berariazko ezagutzak behar direla oinarri hartuta.

5.- GOFEk zehaztuko du erakunde eskatzaileek sarbide betekizunak betetzen dituzten ala ez. Eskaerak legezko eskakizunak edo deialdian eskatzen direnak betetzen ez badituzte ala beharrezko dokumentazioa sartu ez badute, erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar egun baldiodunetan akatsa zuzen edo falta zaion dokumentazioa gehi dezan. Gainera, adieraziko zaio egiten ez badu, eskaerarekin atzera egingo duela, ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezarritako baldintzekin.

6.- Erakundeei beharrezkotzat jotzen diren argibideak eta informazio zein dokumentazio osagarriak eskatu ahal izango zaizkie, eta, oro har, ebazpen proposamena egiteko oinarri izango diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen diren jarduketa guztiak egin ahal izango dira. Horrez gain, elkarreragingarritasun arrazoi teknikoak direla eta baimendutako informazioa ikusi ezin bada, izapidetzeko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

#### **10. oinarria. – Prozedura amaitzea.**

1. – Eskaerak, hala badagokio, zuzendu ondoren eta sarbide betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, instrukzio organoak ebazpen proposamena egingo du eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Organo horrek, prozedura hasi zenetik, gehienez, sei hilabeteko epean jakinarazi beharko du



ebazpena. Ebazpena aldekoa izango da oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskaera guztietan.

2. – Ebazpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3.- Ituntzeko eskaera berariaz ebazteko betebeharra gorabehera, deialdi honetan aurreikusitako epearen barruan ebazpenik ematen ez bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez ezetsizat joko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.1 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren babesean.

### **11. oinarria. – Betekizunak betetzen dituzten erakunde guztiei saio kopurua esleitzea.**

1. – GOFek saio kopuru bat esleituko die eskaerak aldeko ebazpena jaso duten erakunde guztiei, deialdian ezarritako gehieneko kopurua gainditu gabe, eta banaketa egiteko, besteak beste, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Lehenik eta behin, saioak esleituko dira zerbitzurako eskubidea onartuta duten eta dagoeneko zentroan plaza betetzen duten edo esleituta duten pertsona guztien borondatezko jarraitutasuna bermatuz, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7., 8. eta 9. artikuluek ezartzen dituzten printzipioen, arreta ereduaren eta erabiltzaileen eskubideen arabera, salbu eta azken artikuluko horretan ezarritakoaren esparruan zentro zehatzaren esleipena aldatu bada.

b) Era berean, ituntze eskaera formalizatu aurreko 30 egunetan esleitutako esku-hartzea zuten pertsonak hartuta izan dituzten saioak esleituko dira, nahiz eta eskaera formalizatzeko unean hartuta ez egon, heriotzagatik, uko egiteagatik, lekualdatzeagatik edo erabiltzaileen egoerarekin lotutako bestelako arrazoiengatik.

c) Deialdian aurreikusitako saio guztien artean esleitu gabekoak geratuko balira, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 65. artikuluko diskriminazio positiboko irizpideen arabera esleituko dira, eta lehentasuna emango zaie, eraginkortasun, kalitate eta kostu baldintza antzekoak daudenean, irabazi-asmorik gabeko gizarte zerbitzuen prestazioan diharduten erakundeei.

d) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren eskainitako saio kopurua deialdian jasotako gehieneko kopurua baino handiagoa bada, erakunde bakoitzaren arteko banaketa honela egingo da, oinarri hauen 3.4 puntuan jasotako balioespenetan oinarrituz:

- Gasteiz udalerrian kokatutako erakundeei dagokienez, banaketa proportzionaltasun irizpidearen arabera egingo da, ituna egiten duen erakunde bakoitzak eskainitako saio kopuruaren arabera.
- Ituna egiten duten gainerako erakundeei dagokienez, banaketa proportzionaltasun irizpide beraren arabera egingo da, erakunde bakoitzak eskainitako saio haztapan koefizienteak erabiliko dira:
  - Aiaraldea % 81.
  - Arabako Errioxa: % 16.
  - Gainerakoak: % 3.



2.- Erakunde bati eskatu duen baino saio kopuru txikiagoa esleitzen bazaio, eskaintako gainerako saioak erreserban geratuko dira, eta deialdi berean formalizatutako itunetako bat azkentzen bada, itundu ahal izango dira, betiere sarbide betekizunak betetzen jarraitzen badute. Hori guztia aurrez formalizatutako itunen indarraldirako eta plaza horietarako izango da, eta aukera horrek ez du inolako eskubiderik sortuko erakunde eskatzaileentzat, hala badagokio, dagokion programa-kontratua sinatu arte.

## **12. oinarria. – Sinadura eta formalizazioa.**

1. – Itun sozialak programa-kontratuen bidez formalizatuko dira ebazpenean adierazitako epean, eta une horretan sortuko dira alderdien eskubideak eta betebeharrak. Horrela, erakundeak kontzertuari uko egiten diola ulertuko da sinadura epe horretan egiten ez bada, hari egotz dakioken arrazoiren batengatik.

2. – Programa-kontratuetan, gutxienez, honako zehaztapen eta alderdi hauek jasoko dira, funtsezkotzat jotzen direnak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuaren 14.2 artikuluan aurreikusita daudenak:

a) Itun sozialaren xedea zehaztea, jarduera bolumen orokorraren estimazioa egitea, eman beharreko zerbitzuen kopurua eta mota zehaztuz, bai eta itundutako plazen kopurua ere, hala badagokio, erreserbatutako plazen kopurua adieraziz.

b) Iraupena, azkentzeko arrazoiak eta aldatzeko nahiz berritzeko prozedura.

c) Administrazioak esleitutako kopuru orokorra, dagozkion modulu ekonomikoen arabera, eta, hala badagokio, modulu ekonomikoak berrikusteko klausula. Funtz publikoen esleipenean eta dagozkion ordainketetan, kasu bakoitzean aplikatu beharreko zerga araudia kontuan hartuko da.

d) Ordainketak egiteko eta gastuak justifikatzeko aldizkakotasuna eta prozedura.

e) Jarraipen, kontrol eta auditoretza prozedura eta mekanismoak, bai eta erakundeak eta administrazioak partekatutako ebaluazio prozedura ere.

f) Alderdiek hartzen dituzten betebeharrak, eta bereziki gizarte zerbitzuen, berdintasunaren, gardentasunaren, datuen babesaren eta konfidentzialtasunaren arloko araudiak ezarritakoak, aplikatu beharreko gainerako araudiarekin batera; baita zerbitzu bakoitzaren dokumentazioan eta publizitatean itunpekoa dela adierazteko betebeharra ere.

g) GOFEk ezarritako material, funtzionamendu eta langile betekizunak.



#### IV. KAPITULUA ITUNEN ARAUBIDE JURIDIKOA

##### 13. oinarria. – Itunpeko erakundearen betebeharrak.

Itunpeko erakundeek, GOFEk ezar ditzakeen bestelakoak gorabehera, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Finantzaketa publiko osoa itundutako zerbitzura edo zerbitzuetara bideratzea.
- b) GOFEk bideratutako pertsonen zerbitzua edo zerbitzuak ematea, itundutako gaitasunaren barruan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan, arreta goiztiarreko esku-hartze integraleko zerbitzuak arautzen dituen araudian eta programa-kontratuan aurreikusitakoa kontuan hartuta. Bestalde, etengabe bermatzea araudi autonomikoak edo, hala badagokio, foru araudiak ezartzen dituen material, funtzionamendu eta langile betekizunak, bai eta sarbide betekizunak eta aplikatutako diskriminazio positiboko neurriak ere.
- c) Oinarri hauek ezartzen diren betebeharrak betetzea, bai eta oro har edo berariaz aplikagarri zaien edozein araudiatik eratorritakoak ere, bai erakundearen izaera juridikoagatik, bai ituntzeko xede den zerbitzu motagatik. Eta, bereziki, berdintasunaren, gardentasunaren eta datuen babesaren arloan aplikatu beharreko araudiak ezarritako betebeharrak, bai eta berariazko arloan erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzu guztiei eta haiek artatzen dituzten egoera desberdinei eragiten dien araudia ere (desgaitasuna eta mendekotasun egoerak, bazterketa, babesgabetasuna edo arriskua, adingabeen babesa eta genero indarkeriaren aurkako babes integrala barne).
- d) Jakinaraztea, gertatzen denean edo aplikatzea aurreikusten denean, emandako zerbitzuei edo ituntzeko gaitasunari, zentroaren titulartasunari edo sarbide betekizunen nahiz diskriminazio positiboko neurrien betetzeari eragiten dion edozein aldaketa; bai eta zerbitzuaren edo zerbitzuen ohiko plantillaren kopuruari edo kualifikazioari eragiten dion edozein aldaketa ere, eta zerbitzuaren prestazioaren alderdi garrantzitsuei eragin diezaikekeen beste edozein faktoreri buruzkoa ere, hala nola eskaintako prestazioei, artatu daitezkeen pertsonen kopuruari eta profilari edo arretaren intentsitateari buruzkoa.
- e) Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9-12 artikuluetan ezarritako profesionalen eta erabiltzaileen eskubideak bermatzea eta haien betebeharrak betetzen direla zaintzea, beren erantzukizun eremuan aplikatu behar direnean. Berezi, eta erabiltzaileek konfidentzialtasunerako duten eskubideari dagokionez, 9.b) artikuluan definitzen den bezala, itunpeko erakundeek tratamenduaren arduradun gisa jardungo dute, eta egoera horretatik eratorritako datuen babesaren arloko araudian ezarritako neurri guztiak hartuko dituzte.
- f) Ituna egindako administrazioari bidaltzea erabiltzaileek aurkeztutako kexa edo erreklamazioen edukia eta erakundeak emandako erantzunak.
- g) Kontrol, ikuskapen, fiskalizazio eta auditoretza lanetan parte hartzea, GOFEk ezarritako baldintzekin, eta hark eskatzen duen informazio ekonomikoa, fiskala, laborala, teknikoa, asistentziala eta bestelakoa ematea, ituna nola gauzatu den baloratzeko, datu babesaren arloko legeria eta aplikatu beharreko gainerako araudia errespetatuz.



h) Itunpeko zentroak hitzematzen du eta behartuta dago hirugarrenei (pertsonak edo ondasunak) eragindako kalteen erantzukizun zibileko poliza bat kontratatzen eta ordaintzen, bere langileak nahiz hirugarren pertsonak barne hartuko dituen, baita zerbitzuaren funtzionamendu normal edo ezohikotik eratorritako edozein erantzukizun ere. Horrenbestez, GOFE salbuetsita geratuko da gai horri dagokion edozein erantzukizunetik. Poliza horrek gutxienez 300.000,00 euroko bermatu beharko du ezbehar eta urte bakoitzeko. Poliza hori indarrean egon beharko da deialdi honen babesean formalizatutako programa-kontratuek irauten duten bitartean.

i) Zerbitzuaren dokumentazioan eta publizitatean adierazi beharko da zerbitzua itunpekoa dela eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte dela, salbu eta zerbitzuaren ezaugarriengatik GOFEK betebehar horretatik salbuesten badu, indarrean dagoen legediaren arabera.

j) Itunpeko zentroan erreferentziako profesional bat egon beharko da, GOFEekin eta familiarekin koordinazioa zainduko duen solaskide nagusia izango dena. Beharrezkoa den koordinazioa eta lankidetzak bermatzeko, GOFEK edozein unetan deitu ahal izango dio itunpeko zentroko erreferentziako pertsonari eta, hala badagokio, zentroko zuzendaritzari, sor daitezkeen zailtasunak eta horiek konpontzeko hartu beharreko neurriak baloratzeko helburuarekin. Erreferentziako profesional horren eginkizunak 26. oinarrian zehazten dira.

k) Itunpeko zentroek ezin izango diete fakturarik egin pertsona onuradunei inolako kontzepturengatik, ezta zentroarekin inolako loturarik ezarri ere, ituntze prozedura honen ondorioz emandako zerbitzuagatik.

l) Itunpeko zentroek AGBTek ezarritako arreta goiztiarreko banakako programa ezartzeko betebeharra izango dute, bai eta oinarri hauen atal teknikoan adierazten diren txostenak bertan zehaztutako epean eta moduan egiteko eta bidaltzeko betebeharra ere.

m) Itundutako erakundeak aplikatu beharreko arauen arabera aurkeztu beharreko baimen eta erregistro guztiak eskatu eta izapidetu behar ditu.

n) Itundutako erakundeak aplikatu ahal zaizkion zerga, karga eta gainerako guztiak ordaindu behar ditu.

ñ) Itunpeko zentroak hitzematzen du kontratuaren xedea egoki garatzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak jarriko dituela abian, eta zeregin hauek bere eskumenekoak izango dira: langile horien harreman juridikoa eta lan harremana, eta kontratuaren xedea ongi eta eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen pertsonak ordezkatzeko. Adierazten da, GOFEK ez duela inolako lan harremanik itundutako zentroko langileekin, ondorio guztietarako.

o) Itunpeko zentroak hitzematzen du GOFEK arreta goiztiarreko esku-hartze zerbitzua emateko bere eskura jarriko dituen baliabide teknologikoak erabiltzeko eta elikatzeko, haren jarraibideei jarraituz.

p) Itunpeko zentroak arreta goiztiarrean parte hartzen duten sistemen arteko beharrezko koordinazioak egingo ditu.

q) Itunpeko zentroak GOFERi jakinaraziko dizkio, hala badagokio, zerbitzuaren onuradunei ematen zaien esku-hartzearekin lotuta ezartzen dituen aliantzak eta lankidetzak, hark baimendu ditzan.



r) Itunpeko zentroko zuzendaritzak familiarekin elkarriketa bat adostuko du dagokion harrera fasea egiteko, harrera egiteko eta esku-hartze egutegia ezartzeko. Lehen hitzordu hori, zentroarekin lehen harremana izan eta gehienez 10 egun naturaleko epean eskaini beharko da. Itunpeko zentroak GOFetik bideratutako pertsonari lehen esku-hartze hitzordua eskaini beharko dio, harrera hitzordutik gehienez 10 egun naturaleko epean. Nolanahi ere, esku-hartzerako sarbidea ebazpena jakinarazi eta gehienez hilabeteko epean egin beharko da. Era berean, itunpeko zentroak erabiltzaileen edo haien familien gogobetetze maila ebaluatzeko galdetegi bat eman eta jaso beharko du urtero. Oinarri hauekin batera dagokion eredia atxiki da, III. eranskin gisa.

s) Itunpeko zentroak hizkuntza eta irudi inklusibo eta ez-sexista erabili beharko ditu zuzenean edo hirugarren pertsona edo erakunde bidez sortzen duen behin betiko dokumentu idatzi edo digital orotan. Halaber, datuak sexuaren arabera bereizi beharko ditu pertsonen buruz sortzen den edozein estatistikan, hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 2.3 artikulua babespean.

t) Itunpeko zentroak hitzematen du indarrean dagoen hizkuntza-araubidetik eratorritako betebeharrak beteko dituela. Otsailaren 4ko 3/2025 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundian hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak onartzen dituenak, ezarritakoaren arabera, itunpeko erakundeek herritarrek bi hizkuntza ofizialetan artatzeko duten eskubidea errespetatuz eman beharko dute zerbitzua.

u) Itunpeko zentroaren erakunde titularrak hitzematen du programa-kontratua indarrean dagoen bitartean bere IFZ mantenduko duela. IFZ galtzeak programa-kontratua suntsiaraztea ekarriko du, eta galdu zuen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

v) Itunpeko zentroak beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa eman beharko ditu gardentasuna bermatzeko, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren esparruan.

w) Lan eta gizarte betebeharrak:

- Gizarte eta lan araudia betetzea.
  - Itunpeko erakundeek lan arloan, gizarte segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan dauden legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak bete beharko dituzte.
  - Zentroek langileei aplikatutako lan-baldintzen inguruan eskatzen zaien informazio guztia emango dute.
- Lanean prestakuntza emateko betebeharrak.
  - Zerbitzuaren berezitasuna kontuan hartuta, itunpeko zentroak langileen etengabeko prestakuntzaz arduratuko dira, eskatzen den esku-hartze motarekin eta haur bakoitzaren nahiz haren familiaren behar espezifikoekin bat datorren kalitatezko arreta bermatzeko.
- Enplegua lortzeko, sustapen profesionalerako eta familiako eta laneko bizitza sustatzeko berdintasuna dagoela bermatzeko betebeharrak.
  - Egikaritzean bermatu behar da emakume eta gizonekin berdintasunez jokatu dela, honako esparruetan: emandako tratuan, enplegu bat lortzean, sailkapen



profesionalean, sustapenean, iraupenean, prestakuntzan, kontratu-amaieran, ordainsarrietan, kalitatean, lan-egonkortasunean, eta lanaldiaren iraupen eta antolaketan.

- Sexua dela eta jazarpena prebenitzeko neurriak.
  - Erakundeak kontratua gauzatzen ari den bitartean lanean sexu-jazarpena eta sexuarengatiko jazarpena prebenitzeko neurriak hartzen dituela bermatuko du.

x) Itunpeko zentroak bermatu beharko du, zerbitzua ematen den bitartean, ingurumen, etika eta bidezko merkataritzako neurri hauek aplikatzen dituela:

- Paper birziklatuen erabilera.
- Bidezko merkataritzatik datozen produktuak kontsumitzea, erabiltzaileek zuzenean kontsumitzeko, edo zentroen barruan instalatzeko eskuratzen dituzten makina automatikoetan jartzeko direnak erabiltzeko.

#### **14. oinarria. – Ituna egiten duen administrazioaren betebeharrak.**

Ituna egiten duen administrazioak betebeharrak hauek edukiko ditu:

a) Zerbitzuaren ordainketa egitea, itunpeko erakundeak fakturazioa aurkeztu ondoren, indarrean dagoen fakturazio araudiaren eta zerga araudiaren arabera.

b) Itunpeko erakundearen betebeharrak betetzen direla zaintzea, deialdian ezarritako egiaztapen sistemaren eta organoaren bidez, eta, hala badagokio, ez-betetzeetatik erator daitezkeen zehapenak ezartzea.

c) Erakundeari modu fede-emailean jakinaraztea programa-kontratuari eragiten dion eta ituna aldatzea edo suntsiaraztea ekar dezakeen edozein gorabehera, baldin eta gorabehera hori aurreikusi badaiteke, ituna egiten administrazioak horren berri izan duenetik gehienez 10 egun balioduneko epean.

d) Erabiltzaileek zerbitzuari buruz aurkeztutako kexen kasuan, itunpeko erakundeari entzunaldia ematea.

e) Zerbitzua kontrolatu, jarraipena egin eta etengabe ebaluatzea, haren kalitatea bermatzeko eta ezarritako helburuak lortzeko. Xede horretarako, egokitzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu ahalko ditu.

f) Zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko bidezkotzat jotzen dituen denetariko gomendioak emango dizkio itunpeko erakundeari, eta antzematen dituen akatsen berri emango dio, ahalik eta lasterren konpondu ditzan.

g) Zerbitzua hobetzeko dagozkion argibideak ematea, eta egin dakizkiokeen galderei gehienez hamabost egun balioduneko epean erantzutea.

h) Arreta goiztiarreko esku-hartze zerbitzua ematean beharrezkoa izango den interkomunikazioa bermatzeko, behar adinako baliabide teknologikoak jartzea itunpeko erakundearen eskura.



i) GOFEk ez du inolako erantzukizun zibil, administratibo eta penalik izango zerbitzua ematean gertatzen diren kalteengatik.

## **15. oinarria. -Fakturazioa.**

1.- Emandako zerbitzuaren fakturazioa GOFeko Zuzendaritza Gerentziaren ebazpenari lotuta egongo da, adingabe bati arreta goiztiarreko zerbitzurako sarbidea onartzen dion ebazpenari hain zuzen, izan ere, erabaki horrek arreta goiztiarreko banakako programa ere onetsiko du, eta bertan zehaztuko dira haurrarekin landu beharreko berariazko esku-hartzeak eta hileko edota guztizko ordu/saio kopurua. Programa horrek indarrean jarraituko du, dagokionean, haurraren egoera berrikusi ondoren plan berri baten ebazpena eman arte, edo zerbitzua amaitu arte.

2.- Arreta goiztiarreko banakako programa Zuzendaritza Gerentziaren ebazpen bidez onesten denetik aurrera, arreta goiztiarreko zerbitzua doakoa izango da erabiltzaileentzat; beraz, ezin izango zaie fakturarik egin programan jasotako edozein kontzepturengatik. Arreta goiztiarreko zerbitzuaren erabiltzaileei ezin izango zaie inolako erakunderekiko loturarik ezarri, ezta programa-kontratuan jasotakoez bestelako baldintza edo obligaziorik ere.

3.- Hil bakoitzeko faktura zerbitzua eman ondorengo hilaren lehenengo 5 egunetan egingo da. Betebehar hori ez betetzea arau-haustetzat jo ahal izango da. Ordainketak gehienez hogeita hamar eguneko epean egingo dira, deialdi hau bultzatzen duen arlo teknikoak dagokion faktura onartu ondoren. Hilero faktura bana egingo da zentro bakoitzeko.

4.- GOFEk erakunde prestatzaileari itundutako eta emandako orduen kostua ordain diezaion, erakunde horrek faktura aurkeztu beharko du, emandako arreta goiztiarreko ordu guztien xehetasunarekin, hala badagokio modalitateka banakatuta, bai eta unitateko prezioa eta prezio osoa ere.

Era berean, fakturarekin batera eta haren eranskin gisa, dokumentu bat aurkeztu beharko da, artatutako adingabe bakoitzari buruz honako informazio hau jasoko duena:

- Adingabearen identifikazio datua, datu pertsonalen babesagatik anonimizatua.
- Egindako hileko saioen kopurua, mota, iraupena eta zenbatekoa.
- Adingabe bakoitzeko hileko kostu osoa.

Dokumentu hori aurkezten ez bada, dagokion fakturaren ordainketa eten egingo da.

5.- Erabiltzaileek dagokien itunpeko zentroarekin hitzartutako hitzorduetara ez joateagatik aurreikusitako zenbatekoa ordaindu ahal izateko, fakturatutako hilabetean gertatutako kasuen zerrenda erantsi beharko da, aipatutako egoerara egokitzen direnena. GOFEk kasu bakoitza egiaztatu ahal izango du egokitze jotzen dituen bitartekoen bidez.

6.- Gainera, GOFEk faktura ordain dezan, baldintza izango da hasierako txostenak, jarraipen txostenak, ezohiko txostenak, deribazio txostenak edo, hala badagokio, amaierako txostenak garaiz eta behar bezala egin eta bidali direla egiaztatzea, behar bezala datatuta eta sinatuta.



7.- Abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuak jasotakoa betez, zeinaren bidez sortu baitzen Foru Administrazioaren Ordainagirien Kontabilitate Erregistroa eta onetsi baitzen haiek izapidetzeko prozedura, erakunde adjudikaziodunak fakturak formatu elektronikoan aurkeztu behar ditu bertan adierazitako prozedura erabiliz.

## **V. KAPITULUA**

### **IRAUPENA, BERRITZEA, ALDATZEA ETA AZKENTZEA**

#### **16. oinarria. – Itun sozialen iraupena eta berritzea.**

1. – Itunpeko erakunde bakoitzarekin itun soziala formalizatzeko erabiliko den programa-kontratuak bi urteko iraupena izango du hasiera batean, eta formalizatzen den unetik izango ditu ondorioak,hots, GOFEn Administrazio Kontseiluko lehendakariak programa-kontratua sinatzen duen egunean.
- 2.– Programa-kontratuak hasierako iraupen epearen adinako denboraz berritu ahal izango dira, baldin eta alderdiek elkarrekin adostuta hala aurreikusten bada, eta finantzaketarako aurrekontu egoki eta nahikoa badago.

#### **17. oinarria. – Itun sozialen aldaketa.**

1. – Itun sozialak ofizioz edo itunpeko erakundeak eskatuta aldatu ahal izango dira, betiere xedapen batetik eratorritako nahitaezko alderdiak aldatzen ez badira, eta interes publikoko arrazoiak badaude. GOFE izango da aldaketa onesteko eskumena duen erakundea, itunpeko erakundearen berariazko onarpena izanik.
2. – Hala ere, itun sozialen araubidea arautzen duen azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuaren 18. artikulua arabera, ituna aldatzeko arrazoiak izango dira zerbitzuen aldaketak, plazak murriztu edo handitzeagatik, oinarri hauetako 11.2 puntuan ezarritakoaren arabera, hala badagokio, erreserban geratu diren plazak alde batera utzita. Aldaketak ezin izango du ekarri itunaren kostuaren % 15etik gorako igoera edo murrizketa. Ituna egiten duen administrazioak hala ezartzen badu, eta erakundeari hamar egun baliouduneko entzunaldi izapidea eman ondoren, nahikoa izan ahalko da baimendutako kreditua handitzea edo murriztea, dagozkion modulu ekonomikoen zenbatekoaren arabera, itunaren aldaketa izapidetu behar izan gabe. Hala ere, plazen aldaketa programa-kontratuaren gehigarri batean jaso beharko da.
3. – Ituna aldatu ahal izango da krisi egoeretan, premiaz plazak gaitzeko beharra dagoenean, eta kontratua sinatzeko unean aurreikusi ezin ziren bestelako egoera berrietan ere, itunpeko erakundearekin hitz eginez. Dena den, aldaketa horrek ezingo du aldatu itunaren izaera orokorra, eta zenbatekoa ezingo da desbideratu % 50 baino gehiago hasierako kostutik, arrazoi horrengatik edo beste batzuegatik.



## **18. oinarria. – Itun sozialak azkentzea.**

Honako hauek izango dira itun sozialak azkentzeko arrazoiak:

- a) Ituna betetzea, haren indarraldia eta izan ditzakeen berritzeen epea amaitu ondoren.
- b) Zentroaren pertsona juridiko titularra azkentzea, salbu eta erakundea eta ondarea oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituen eta itunari dagozkion betebeharrak guztiak bere gain hartzen dituen beste pertsona juridiko baten titulartasunera igarotzen badira. Hori guztia GOFeren Administrazio Kontseiluaren berariazko onarpenarekin.
- c) Itunpeko erakundearen konkurtso-deklarazioa edo zentroaren edo zerbitzuaren titularraren porrota, edo ordainketa etetea deklaratu duen ebazpen judiziala. Halakoetan, eta ituna azkentzea eragiten duen ebazpen judiziala eman arte, Administrazioak, dagozkion esku-hartzaile judizialekin adostuta, itunetik eratorritako obligazioak betetzen direla bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.
- d) Itunpeko erakundeak itundutako zerbitzuaren jarduera amaitzea, alderdiek elkarrekin adostuta, eta behar bezala baimenduta.
- e) Itunpeko erakundeak jarduera borondatez etetea, behar bezala baimenduta, oro har edo itundutako zerbitzuari dagokionez, salbu eta interes publikoko arrazoiek hori eragozten badute. Horrela, programa-kontratuan zehazten den aurrerapenarekin jakinaraziko da, eta, nolana ere, ituna amaitu baino sei hilabete lehenago.
- f) Itunean ezarritako ordainketa araubidea ez betetzea, betiere erakundeek itunean ordainketa egiteko aurreikusitako aurretiazko betekizunak bete badituzte.
- g) GOFek bideratutako erabiltzaileak artatzeari uko egitea, baldin eta elkarrizketa baten ondoren, programa-kontratuan aurreikusitako itunaren jarraipen mekanismoen bidez, administrazioaren eskaerak eta erakundearen ukoak bere horretan jarraitzen badute.
- h) Aurreikusitako material, funtzionamendu eta langile betekizunak ez betetzea.
- i) GOFek baldintza teknikoak edota ekonomikoak aldatzea, itunpeko erakundea ados ez dagoenean.
- j) Zerbitzu baten eskariaren gabezia nabarmena eta jarraitua izatea edo itun soziala justifikatu zuten beharrak desagertzea, amaiera data bete aurretik.
- k) Erakundeari gizarte zerbitzuak emateko emandako baimena edo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak hornitzeko homologazioa kentzea.
- l) Erakundeari egotz dakioken arau-hauste oso astun bat egitea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen VII. tituluko II. kapituluaren ezarritako artetan, eta horren ondorioz, erakundeak itundutako zerbitzua ematen jarraitzea eragozten duen zehapena ezartzea.



m) Zerga, lan, Gizarte Segurantzako eta laneko arriskuen prebentzioko legeria urratzeagatik ezarritako zehapen irmoa, bai eta sexu arrazoiengatiko diskriminazioagatik ezarritakoa ere, arau-hauste astunaren ondorio denean.

n) Finantzaketa publiko osoa itundutako zerbitzuetara ez bideratzea edo aurreikusitako gainerako obligazioak ez betetzea, baldin eta zerbitzuaren prestazioan nahasmendu nabarmena eragiten badu, edo berriro gertatzen bada, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 92. artikulua arabera.

ñ) Itunpeko erakundeak ituntzeko eskatutako beste edozein betekizun behin betiko galtzea.

o) Legeetan ezarritakoaren arabera, eta ituna egin duten alderdiek elkarrekin adostuta, programa-kontratuan ezartzen diren gainerako arrazoi guztiak.

### **19. oinarria. – Itun sozialak azkentzeko prozedura eta ondorioak.**

1. – Itun soziala azkentzeko prozedura alderdi batek eskatuta edo ofizioz hasi ahal izango da. Ofizioz hasten denean, itunpeko erakundeari hamar egun balioduneko entzunaldi epea emango zaio.

2.– Ebazpenak adierazi beharko ditu hura eragiten duen arrazoa, itun soziala azkendutzat edo suntsituzat jotzen den data, zer errekurtso aurkez daitezkeen eta bi alderdien arteko obligazio ekonomikoen likidazioa.

3. – Erakundeak zerbitzuak ematen jarraitu beharko du, ebazpenean ezarritako jarduera etetearen egunera arte. Ebazpen horretan, GOFEk klausula bat ezarri ahal izango du dagoeneko esleituta dituzten pertsonen plaza bermatzeko, baldin eta administrazioak itun soziala azkentzeko eskaera egin aurretik bideratu baditu, beharrezko aukerak prestatzen diren bitartean eta denbora-muga batekin.

4.- Azkentzearen edo suntsiaraztearen ondorioak ebazpenak ezartzen duen jarduera amaitzen den egunetik aurrera izango dira, erakundea entzun ondoren eta betiere erabiltzaileei ahalik eta kalte txikiena eragiteko, zerbitzuetarako duten eskubidea bermatzeko eta, hala badagokio, haien lekualdaketa errazteko helburuarekin.

### **20. oinarria. – Erabiltzaileei arreta ematen jarraitzea.**

1. – Tresna bat beste batez ordezkatzeak —ituna, hitzarmena, kontratua edo zuzeneko kudeaketa publikoa izan— ez du inoiz arriskuan jarriko plaza esleitua duten erabiltzaileei ematen zaien arretaren jarraitutasuna, eta GOFEk beharrezko estaldura juridikoa eta finantzarioa bermatuko ditu.

2.– Itun bat azkentzen den kasu guztietan bermatu beharko da zerbitzurako aitortutako eskubidea duten erabiltzaileek zerbitzua jasotzen jarraitzea. Horretarako, beharrezko aukerak gaituko dira eta, jarduera amaituko den data ezartzean, epe nahikoa ezarriko da.



## **VI. KAPITULUA.** **EZ BETETZEA, ARAU HAUSTEAK, ZIGORRAK ETA ONDORIOAK**

### **21. oinarria. – Ez-betetzeak eta zigorrak.**

1. – Oinarri hauek eta haiei lotutako dokumentazioa ez betetzea, jarraian deskribatzen direnak eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen VII. tituluko II. kapituluan jasotakoei gehitzen zaizkienak, oso astun, astun eta arin gisa sailkatzen dira, honela:

#### 1.1. Oso astunak:

a) Itunpeko zentroetan artatutako pertsonen banakako eskubideak urratzea, bereziki intimitaterako eskubidea, adierazpen askatasuna, tratu egokia eta sekretu profesionala.

b) Itunpeko zentroko langileek erabiltzaileei edo haien familiei hitzez edo egitez errespetu falta edo tratu desegokia ematea.

Arau orokor gisa, erabiltzaileen eskubideen urraketak oso astuntzat joko dira, salbu eta gertatzen diren inguruabarren ondorioz, astun edo arintzat jo badaitezke.

c) Gabezia erabiltzaileen kontrol eta babesean, haien osotasun pertsonalari eragiten dionean.

d) Deialdi honetan ezarritako baldintzetan giza baliabideak eta baliabide materialak ez esleitzea.

e) Eskatutako aseguruak ez kontratatzea edo ez berritzea, edo zor dituzten primak ez ordaintzea.

f) Itunpeko zentroak GOFEn ikuskapen-lana edozein modutan oztopatzea, zerbitzuen prestazioaren jarraipenean eta kontrolean.

g) Itunpeko zentroak datu babesaren arloko araudia errespetatzeko duen obligazioa ez betetzea.

h) Elkarren segidako 90 eguneko epean bost (5) ez-betetze astun egitea.

i) Elkarren segidako 30 eguneko epean ez-betetze astun bera egitea.

j) Egin gabeko esku-hartzeei dagozkien orduak GOFeri fakturatzea.

k) Arreta goiztiarreko zerbitzua erabiltzaile onuradunentzat doakoa denez, erabiltzaileei fakturatzea.



1.2. Astunak:

- a) Zerbitzua ematean edota AGBTek ezarritako arreta goiztiarreko banakako programaren garapenean gabeziak izatea.
- b) GOFEk baimendu gabeko erabiltzaile onuradunen arretaren etetea.
- c) Deialdi honetan adierazitako txostenak ez egitea.
- d) GOFERI pertsonengan edo zerbitzuaren prestazioan eragina duten gertakari garrantzitsuak ezkutatzea edo ez jakinaraztea; zerbitzuan izandako aldaketak, gorabeherak edo intzidentziak, edo prestazioa aldatu, larritu edo murrizten duen beste edozein egoera.
- e) GOFEk emandako jarraibideak behin eta berriz ez betetzea.
- f) GOFErekin kexak eta iradokizunak konpontzen ez laguntzea.
- g) Ituntze akordioaren jarraipena eta kontrola egiteko beharrezkoa den informazioa, ohikoa nahiz ezohikoa (GOFEk eska dezakeena), emateko obligazioa ez betetzea edo modu desegokian betetzea.
- h) Hizkuntza eta berdintasun arloko exekuzio baldintzak ez betetzea.
- i) Hogeita hamar egun jarraian bost (5) ez-betetze arin egitea.
- j) Ez-betetze arin bera berriro egitea hogeita hamar (30) egun jarraian.

1.3. Arinak:

- a) Instalazioen mantentze-lanetan arduragabekeria izatea, erabiltzaileei zuzenean edo zeharka modu arinean eragin diezaiekeena, berrerortzerik gertatu gabe.
- b) GOFEren jarraibideak ez betetzea, baldin eta horrek zerbitzuaren prestasioari eragiten ez badio, eta berrerortzerik gertatzen ez bada.

2. – Adierazitako ez-betetzeek honako zehapen hauek ekarriko dituzte:

- a. Ez-betetze arinak: hileko fakturazioaren % 4ra arte.
- b. Ez-betetze astunak: hileko fakturazioaren % 4tik % 7ra bitartean.
- c. Ez-betetze oso astunak: hileko fakturazioaren % 7tik % 10era bitartean.

3.– Zehapenak ezartzeko prozedura Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloak egindako txosten tekniko-juridiko baten bidez gauzatu da —hor, ez-betetzearen arrazoa deskribatu eta baloratuko da—, eta ondoren GOFeko



Zuzendaritza-Gerentziaren ebazpena emango da, interesdunari hamar egun baliioduneko entzunaldi-  
epea eman ondoren.

Adostutako zehapenak berehala betearaziko dira, eta itunpeko zentroak aurkeztutako fakturatik  
dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira.

## **VII. KAPITULUA DATUEN BABESA**

### **22. oinarria. - Datu pertsonalen babesia.**

Itun honi honi datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko araudia 2016/679 (EB)  
Erregelamendua da, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu  
pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege  
Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari  
buruzkoa; bai eta programa-kontratuarekin batera sinatu beharreko datu babesaren arloko  
dokumentazio juridikoa ere.

Zerbitzuaren prestazioak eskatzen du GOFEk datuak itunpeko erakunde bakoitzari uztea. Utziko diren  
datuen tratamenduaren helburua da profesionali beharrezko informazioa ematea itun sozialaren xede  
den zerbitzua egoki emateko, erabiltzaileen berariazko beharretara egokitu ahal izateko. Nolanahi ere,  
itunpeko erakundeak gai honi buruzko kontratua sinatuko du. Kontratu hori, programa-kontratuari  
erantsiko zaio, eta haren eredia oinarri hauen I. eranskinean agertzen da.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduak (EB), 2016ko apirilaren  
27koak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona  
fisikoak babesteari buruzkoak eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duenak, 28.2 artikuluan  
ezarritakoa alde batera utzi gabe, eta kontuan hartuta ituntzea gauzatzeak eskatzen duela itunpeko  
erakundeak datu pertsonalak tratatzea tratamenduaren arduradunaren kontura, honako betebeharrak  
ezartzen dira:

- a) Datu horiek uzteko ezarritako helburua betetzea.
- b) Datu-babesaren arloko estatuko eta Europar Batasuneko araudia betetzea kasu guztietan, 202.  
artikuluko 1. apartatuko azken paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe.
- c) Itunpeko erakundeak, itunaren dokumentua formalizatu aurretik, adierazpen bat aurkeztu behar du,  
zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzariari lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazteko.
- d) Itun sozialaren indarraldian zehar, aurreko c) letran aipatzen den adierazpenean emandako  
informazioan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraztea.
- e) Erakundeek beren eskaeran adierazi beharko dute zerbitzariak edo haiei lotutako zerbitzuak  
azpikontratatzeko asmorik duten ala ez, zerbitzua egiteko ardura emango zaien enpresa edo  
erakundeen izena edo enpresa-profila adierazita, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen  
zehaztuta.



## **OINARRI TEKNIKOAK**

### **VIII. KAPITULUA ZERBITZUA EMATEA**

#### **23. oinarria. – Prestazioaren antolaketa.**

Arreta goiztiarreko zerbitzuen prestazioan parte hartzen duten hiru sistemek ikuspegi prebentibo eta asistentzial batetik esku hartzen dute esku-hartzearen maila desberdinetan: lehen mailan, bigarren mailan eta hirugarren mailan.

Hirugarren mailari dagokionez, esku-hartzea haurrari, haren familiari eta ingurukoei zuzentzen zaie, haien garapenerako baldintzak hobetzeko eta familiaren gaitasunak sustatzeko helburuarekin.

Esku-hartze hori gauzatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuak eta foru-araudiak adierazten duten bezala, arreta goiztiarra funtzionalki arreta goiztiarreko balorazio-taldeetan (AGBT) eta arreta goiztiarreko esku-hartze taldeetan (AGET) egituratzen da. Talde horiek, beren lana baimendutako haur garapeneko eta arreta goiztiarreko zentroetan (HGAGZ) garatzen dute.

#### 1.- Arreta goiztiarreko balorazio-taldea (AGBT).

AGBT Taldea kudeaketa publikoko kide anitzeko organoa da, GOFeren GOFeko Orientazio eta Balorazio Zentroko administrazio-unitatea den Desgaitasuna duten Pertsonen Arloari atxikia. Osasun sisteman, hezkuntza sisteman eta gizarte zerbitzuen sisteman adituak diren profesionalek osatzen dute. Profesional horiek koordinatuta lan egiten dute kasuak baloratzeko eta proposamen teknikoak egiteko.

Bere eginkizunak betetzean, AGBTk Arabako Lurralde Historikoko arreta goiztiarreko arduradun tekniko gisa jarduten du, bai eta lurralde horretako AGETentzako erreferentziatzko talde gisa ere.

Arabako Lurralde Historikoan kudeaketa publiko zuzeneko AGBT bat dago. Besteak beste, honako eginkizun hauek ditu: kasu bakoitzari buruzko informazio garrantzitsua biltzea eta hurrek nahiz haien familiek dituzten beharrak baloratzea, haurrarentzako arreta goiztiarreko banakako programa bat egiteko.

#### 2.- Arreta goiztiarreko esku-hartze taldeak (AGET).

AGETek beren lana HGAGZetan garatzen dute, eta zentro horiek, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Erregistroan baimenduta eta inskribatuta egon behar dute.

AGETei honako eginkizun hauek dagozkie:

- 0 eta 6 urte bitarteko hurrei arreta ematea, arreta goiztiarreko esku-hartze zerbitzuaren onuradun direnean, lurraldeko AGBTk ezarritako arreta goiztiarreko banakako programaren arabera.



- Artatzen dituzten haurren bilakaeraren berri ematea AGBTri, hark adierazitako argibideen eta aldizkakotasunaren arabera, eta egokituz jotzen dituen proposamenak egitea.
- Familiari eta bere inguruari laguntza, babesa eta orientazioa ematea.
- Sistemen arteko trantsizioak prestatzen laguntzea eta dagokion deribazio txostena egitea.
- Adingabea artatzen ari diren gainerako sistemetako profesionalekin lankidetzan jardutea.
- Dokumentuen artxiboa eta fitxategi automatizatuak konfidentziasun bermekin mantentzea, datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin bat etorritz.

### 3.- Haurren garapeneko eta arreta goiztiarrerako zentroak (HGAGZ).

HGAGZ dira AGETak kokatzen diren egiturak, eta horietatik gauzatzen dira haien esku hartzeak, dagokion AGBTrekin lankidetzan eta koordinatuta.

Arabako Lurralde Historikoak foru titulartasuneko eta kudeaketa pribatuko HGAGZ publiko bat du.

Arreta goiztiarreko esku hartze zerbitzuen onuradunak foru titulartasuneko HGAGZ publikoan edo deialdi honen bidez itundutakoen artean baimendutako HGAGZ batean artatu ahal izango dira.

Arabako lurraldean bizi diren arreta goiztiarreko esku-hartzearen onuradunen eskaerari erantzuteko helburuarekin, deialdi honetako oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eta Arabako GOFerekin itun soziala egin nahi duten HGAGZ guztiek egin ahal izango dute, urteko arreta ordu kopuru jakin bat eskainiz honako esku-hartze mota hauetan: heldutasun garapenaren estimulazio globala, fisioterapia eta logopedia.

Itunpeko zentroek hitzematzen dute beren zentroan artatuak izan nahi duten zerbitzuaren onuradunak onartuko dituztela, betiere esku-hartze mota bakoitzerako eskainitako urteko arreta ordu kopurua gainditzen ez bada.

Salbuespen gisa, zentroak haur bati arreta eman ezin badio, GOFeri txosten bat aurkeztu beharko dio, arreta hori ematea eragozten duten arrazoiak justifikatuz. GOFEk aurkeztutako txostena baloratuko du, eta alegatutako arrazoiak haurra artatzeko ezintasunaren justifikazio nahikoa diren ala ez erabakiko du. Justifikazio nahikorik ez dagoela erabakitzen bada, deialdiaren 21. oinarrian jasotako zehapenak ezarri ahal izango dira.

### **24. oinarria. – Prestazioaren edukia.**

Itunpeko zentroek arreta goiztiarreko oinarritzko printzipio metodologikoak bete beharko dituzte, eta oinarrietan jasotako zerbitzuak behar bezalako jarraitutasunarekin, arduraz, erabiltzaileentzako kalitatezko arretarekin eta jardunbide profesional egokiekin ematera behartuta egongo dira, arreta goiztiarreko banakako programaren helburuak lortzeko, eta programa horri lotuta.



Esku-hartzea banaka planifikatu eta programatuko da, haurren beharrak eta ahalmenak, familiaren egoera eta aukerak, eta ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta. Programazioak gutxienez honako hauek jasoko ditu: helburuen eta horiek lortzeko esku-hartzeen nahiz jardueren identifikazioa, zehaztapena eta denboralizazioa; erabiltzaileen beharretara egokitutako teknika metodologiko berritzaileen aplikazioa; giza baliabide eta baliabide material egokien esleipena; eta aurreikusitako helburuak lortzeko ebaluazio eta laguntza prozedurak.

#### 1.- Arreta goiztiarreko esku-hartzea.

Arretak beharrezkoak diren garapenaren arlo desberdinetako esku-hartzea hartuko du bere baitan, arreta goiztiarreko banakako programan adierazitakoaren arabera. GOFEk onuradunei bidaliko die programa hori, arreta goiztiarreko esku-hartze zerbitzua emateko ebazpenarekin batera.

Tratamenduko esku-hartzetzat hartzen dira haurrekin, haren familiarekin eta ingurunearekin programatutako eta zuzenean egindako jarduerak. Haien helburua da garapenaren arlo desberdinetan behar duen gaitasun mailarik handiena lortzea.

Tratamenduko esku-hartzeak haurren benetako beharretara eta ahalmenetara, familiaren egoerara eta ingurunearen ezaugarrietara egokitu beharko dira, AGBTk egindako arreta goiztiarreko banakako programan adierazitakoaren arabera.

#### 2.- Esku-hartzearen faseak.

##### a. Harrera.

Haurren gurasoek edo, hala badagokio, legezko ordezkariak foru HGAGZarekin edo, bertan plazarik ez badago, hautatutako zentroarekin harremanetan jarriko dira esku-hartzea hasteko, gehienez 3 asteko epean, eskubidea aitortzen duen ebazpena jakinarazi den egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, arreta deialdi honen bidez itundutako zentroetako batek emango duen kasuetan, GOFeko arreta goiztiarreko balorazio eta orientazio taldeak zentro horien zerrenda emango du.

Zentroko zuzendaritzak familiarekin adostuko du lehen bisita, dagokion harrera fasea egiteko, harrera egiteko eta haurrekin nahiz haren familiarekin lehen elkarrizketa egiteko. Lehen hitzordu hori zentroarekin lehen harremana izan eta gehienez 10 egun naturaleko epean eskaini beharko da.

Fase honetan, familiari jakinaraziko zaio nor izango den esleitutako erreferentziazko profesionala, eta zerbitzuaren egutegia emango zaio, arretarako ordutegiarekin, esku-hartzearen hasierarekin, erabiltzailearen eskubide eta betebeharren informazioa ematen duen dokumentuarekin, besteak beste. Dokumentu horiek entregatu eta jaso direla egiaztatuta geratu beharko da.

##### b. esku hartzea. Arreta goiztiarreko banakako programa ezartzea.

Itunpeko zentroak haurrekin esku hartzeko lehen hitzordua eman beharko du, zentroarekin lehen harremana izan eta gehienez 10 egun naturaleko epean.



Zentroak hasierako txostena egingo du adingabe bakoitzarekin esku-hartzea hasi ondoren, GOFEk emandako ereduaren arabera, lehen esku-hartzetik zenbatzen hasita gehienez 30 egun naturaleko epean.

Arreta goiztiarreko banakako programa garatzeko programazioak gutxienez honako hauek jasoko ditu: helburuen eta horiek lortzeko dagozkien esku-hartzeen nahiz jardueren identifikazioa, zehaztapena eta denboralizazioa; esku-hartzearen modalitate metodologikoak, betiere erabiltzaileen beharretara egokitutako teknika metodologiko berritzaileen aplikazioa kontuan hartuta; giza baliabide eta baliabide material egokien esleipena; arretan parte hartzen duten profesionalak eta erreferentziazko profesionala; beharrezko koordinazioak; eta aurreikusitako helburuak lortzeko ebaluazio eta laguntza prozedurak (jarraipen ebaluazioak, helburuak lortzeko adierazleak eta abar).

Zentroan modu diziplinartekoan lan egingo da, profesional profil baten edo bestearen lehenetsuzko esku-hartzearekin, haurraren eta familiaren beharren arabera. Era berean, kasu bakoitzaren berezitasunen arabera, haurrarekin esku hartzen duten profesionalen artetik erreferentziazko profesional bat izendatuko da. Profesional horrek, familiari lagunduko dio eta adingabearen esku-hartzei eta bilakaerari buruzko informazioa emango dio.

Esku-hartzea AGBTk zehaztutako arreta goiztiarreko banakako programara egokitu beharko da, haurraren eta haren familiaren beharrak kontuan hartuta, eta ezin izango dira eman programa horretan adierazitakoak baino saio gehiago edo gutxiago. Hala ere, AGETek hurrengo berrikuspenaren data baino lehen arreta goiztiarreko banakako programa berrikustea gomendagarri edo beharrezko egiten duen gertakari edo aldaketa esanguratsuren bat antzematen badu, GOFeko profesional-taldeari jakinaraziko dio dagokion txostena eginez.

Arreta goiztiarreko banakako programa horrek indarrean jarraituko du, dagokionean, AGBTk haurraren egoera berrikusi ondoren plan berri baten ebazpena eman arte, edo plana amaitu arte.

c. Esku-hartze saioen garapena eta iraupena.

Arreta zuzeneko saioak banakakoak izango dira, eta HGAGZn egingo dira, modu ambulatorioan eta aurrez aurre.

Heldutasun garapenaren estimulazio globaleko eta fisioterapiako esku-hartze saio bakoitza 60 minutukoa izango da, haurrari eta familiari diziplinarteko diziplinarteko arreta emateko. Saioaren ondoren, tratamenduaren lorpenari eta jarraipenari buruzko informazioa ere emango da. Nolanahi ere, haurrari emandako arreta zuzena ez da inoiz izango 40 minututik beherakoa.

Logopediako esku-hartze saio bakoitza 35 minutukoa izango da, haurrari eta familiari diziplinarteko diziplinarteko arreta emateko. Saioaren ondoren, tratamenduaren lorpenari eta jarraipenari buruzko informazioa ere emango da. Nolanahi ere, haurrari emandako arreta zuzena ez da inoiz izango 25 minututik beherakoa.

Bi kasuetan, ezin izango da saioari eskainitako denbora zatitu edo murriztu, salbu eta teknikoki behar hori justifikatzen bada adingabe bakoitzaren behar zehaztutara egokitzeko.



Arreta goiztiarreko banakako programa esku hartzeko eta ezartzeko fase osoan, familiaren inplikazioa eta lankidetzara garrantzitsua eta beharrezkoa izango da. Horretarako, HGAGZtik beharrezkoa den familia arreta eskainiko da, bai esku-hartzearen helburuak lortzeko, bai emaitzak orokortzeko.

Zentroan egindako esku-hartzeak GOFEk horretarako gaitutako aplikazio informatikoan edo informazioa trukatzeko ematen dituen bitartekoetan erregistratuko dira.

d. Esku-hartzearen amaiera.

Honako hauek izango dira zerbitzua ematen amaitzeko arrazoiak:

- a) Arreta goiztiarreko banakako programan ezarritako helburuak betetzea.
- b) Artatutako haurrak zerbitzura sartzeko eta bertan egoteko gehieneko adina gainditzea (6 urte).
- c) Gurasoen edo legezko ordezkariak berariaz adieraztea. Hori, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ezarritako baldintzekin eta mugekin gauzatu beharko da, hurrei aitortutako banakako eta taldeko eskubideekiko errespetua bermatzeko eta babesteko.
- d) Onuradunak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak zerbitzua behar bezala emateko ezarritako arauak ez betetzea. Kasu horietan, 25. oinarrian ezarritako prozedura jarraituko da.
- e) Familiaren helbidea edo bizilekua beste probintzia edo autonomia-erkidego batera aldatzea.
- f) Hiltzea.

Aurreko kasu guztietan, GOFEk emandako berariazko ebazpena egon beharko da.

a) eta b) apartatuen kasuetan, arreta amaitzeko prozesua ebazpena eman baino 2 hilabete lehenago hasi beharko da, gutxienez. Gainerako kasuetan, berehala hasiko da, baina berehalakotasun horrek ezin izango du ekarri trantsizio prozesuaren kalitatea murriztea, ezta GOFEk horretarako ezarritako protokoloen erabilera murriztea ere.

a) kasuan, amaierako ebazpena haurraren bilakaeraren balorazioaren arabera emango da. Balorazio hori, balorazio taldeak aldizka egiten duen jarraipenaren ondorio izan daiteke edo HGAGZak egindako komunikazioaren ondorio.

b) kasuan, gehieneko adina betetzeagatik, hori bete baino 2 hilabete lehenago AGETetik familiarekin lan egingo da, esku-hartzearen emaitzak ingurune naturalean orokortzeko eta bertan beharrezko egokitzapenak egiteko. Horregatik, azken hilabetean dagokion jarduerak egingo dira orokortze hori eta esku-hartzearen amaiera lortzeko, honako jarduketak hauek eginez:

- Azken saioa adingabearekin, ziklo amaiera gisa. Ezinbestekotzat jotzen bada, esku-hartze mota bakoitzeko saio bat egin ahal izango da.
- Saioa familiarekin edo adingabearen legezko ordezkariarekin, emaitzen orokortzea, adingabearen egoera, erronkak eta erabilgarri dauden material eta baliabideen inguruko orientazioa lantzeko.



d) apartatuaren kasuan, eta zehazkiago justifikatu gabeko absentzien, ordutegiaren ez-betetzeen edo 25. oinarrian ezarritakoaren arabera HGAGZko plazari uko egitea dakarten bi ordutegi proposamenei uko egitearen kasuan, Zentroak txostena egingo dio Arreta Goiztiarreko Zerbitzuari. Txosten horretan, ez-betetze horren xehetasunak jasoko dira, AGBTk balora dezan. AGBTk egokitzat jotzen badu, proposamena egingo du ituna egindako organoak ebazpena eman dezan. Ebazpen horretan, plazari uko egin zaiola edo esku-hartzeari berriro ekingo zaiola berretsiko da, eta erabiltzaileari jakinaraziko zaio. HGAGZ bere esku-hartzea egiteko betebeharretik salbuetsita geratuko da kontrakoa jakinarazi arte. Egiaztapen egokiak egin ondoren, GOFEk baloratuko du egoera adingabeen eta familiaren arloko udal zerbitzu eskudunari edo dagokion organoari jakinarazi behar zaion ala ez.

Helbide aldaketengatik edo bestelako arrazoiengatik HGAGZ aldatu behar duten kasuak, 0 eta 6 urte bitarteko aldian, ez dira alta berritza hartuko, baizik eta deribaziotzat. Halakoetan, horretarako ezartzen diren protokoloak jarraituko zaie.

Kasu guztietan, HGAGZn arreta amaitzen denetik gehienez 15 egun naturaleko epean, zentroak amaiera edo deribazio txostena egingo du eta GOFeri nahiz familiari bidaliko die, hala badagokio.

### 3.- Gizarte eta familia arreta.

Gizarte eta familia arretak antzemandako behar espezifikoak erantzutera bideratuta egongo da, eta ahal den neurrian familien gaitasunak indartzea ahalbidetuko du, bai egungo beharrei, bai etorkizunekoak aurre egiteko, prebentziozkoa den eta trebatzen duen ikuspegia mantenduz.

Arlo honetan, HGAGZtik familiei, besteak beste, honako laguntza hauek eskainiko zaizkie:

- Familia esku-hartze prozesuan laguntzea: zalantzak argitzea eta bilakaerari nahiz helburuen lorpenari buruzko informazioa trukitzea.
- Esku-hartze programan inplikazioa sustatzea.
- Informazioa, orientazioa eta laguntza eskaintzea haurren bilakaeran gertatzen diren aldaketetara egokitzapenak egiteko.
- Esku-hartzearen amaieran laguntza ematea.

HGAGZko profesionalak uste badute familiaren lankidetzak faltak haurrarentzat arrisku-egoera eragiten duela, horren berri emango diote GOFeko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuko gizarte langileari, dagokion txostenaren bidez, eta hark beharrezko jarduketak egingo ditu.

### 4.- GOFeko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuarekin koordinatzea.

Zentroko taldeak arreta goiztiarreko balorazio eta orientazio taldeari haurren egoeraren eta bilakaeraren berri emango dio, dagozkion txostenak eginez, eredu normalizatuen arabera.



- Hasierako txostena.
- Jarraipen txostenak: AGBTk programatutako hurrengo berrikuspena baino 15 egun lehenago gutxienez egingo dira.
- Amaiera txostena: amaiera edota deribazio txostenak egingo dira, hala badagokio, oinarri hauetan adierazitako kasuetan eta moduan.
- Deribazio txostena, hala badagokio.

Era berean, adingabeei eta haien familiei arreta egokia emateko beharrezkotzat jotzen diren gainerako txostenak ere emango dira.

#### 5.- Bertaratze erregistroa.

Zentroak bertaratzeak kontrolatzeko mekanismo bat izango du, familiak esku-hartzea egiten den egun berean sinatu ahal izan dezan, bai eta justifikatutako eta justifikatu gabeko absentzien dokumentu artxiboa ere. Hori guztia GOFeko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren eskura geratuko da, hala eskatzen denean.

Halaber, gorabehera horiek informazioa erregistratzeko eta koordinatzeko ezarritako aplikazio informatikoan edo GOFek horretarako ematen duen bitartekoan beteko dira.

Familiari jakinaraziko zaio beharrezkoa dela absentzien eta ordutegiaren ez-betetzeko kasuen erregistroa egitea, bai eta absentzia errepikatuen kasuan jarraitu beharreko prozedurak ere. Nolanahi ere, erabiltzailearen senideak edo legezko ordezkariak bertaratzearen erantzukizunpeko adierazpenaren dokumentua sinatu beharko du (IV. eranskina). Sinatzen ez badu, plazari uko egiten diola ulertuko da, eta haren espedientea artxibatu egingo da, horretarako ebazpena eman ondoren.

GOFek horretarako sortutako protokoloak aplikatuko dira, horietan egitea egokitzen jotzen diren aldaketak eta berrikuspenak alde batera utzi gabe.

#### 6.- Zentro-aldaketa.

Zentroz aldatzeko eskaera egiten bada, interesdunak eskatuta edo itunpeko zentroak eskatuta, GOFeren Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak onetsi beharko du alde zurretik.

Hasierako zentroak zentro berriari txostena bidaliko dio, bere zentroan artatutako haurra esku-hartzearen zein egoeratan eta unetan dagoen adieraziz. Txosten hori, zentro aldaketaren jakinarazpena egin eta astebeteko epean egin beharko da, gehienez.

Zentro aldaketak ez du inolako aldaketarik ekarriko aldi horretarako esleitutako tratamendu saioen gehieneko kopuruan, arreta goiztiarreko banakako programa bera indarrean dagoen bitartean.

#### 7.- Gorabeherak

Arreta goiztiarreko esku-hartzearen onuradunak artatzen dituzten HGAGZek GOFeko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuari ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote zentro horietan artatutako pertsona onuradunei buruz gertatzen den edozein gorabehera esanguratsu.



Gorabeherak administrazio ondorioen bat izan badezake, gehienez 24 orduko epean jakinaraziko da.

Zentroek gorabehera horien erregistroa eramango dute, eta bertan berariaz jasoko dira pertsona, gorabehera mota, gertatzen den ordua, erregistratzen duen profesionala eta oharrak.

#### 8.- Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak.

HGAGZek, gutxienez, kexa eta erreklamazioen liburu bat jarriko dute zerbitzuaren onuradunen eskura, eta horiek aurkezteko eskubidea, haien erregistro egokia eta, hala badagokio, konpontzeko hartu beharreko neurriak bermatuko dituen prozedura ezarriko dute. Horien erregistroa GOFeko Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetza teknikoari bidaliko diote.

Nolanahi ere, pertsona onuradunek GOFeren kexa edo iradokizunen prozedurara jo ahal izango dute beti, hala badagokio; zentroko profesionalak, berriz, GOFeko Erabiltzailearen Arretarako Unitatera (EAU) bideratu beharko dituzte, eta unitate horretara iristeko beharrezkoak diren jarraibide guztiak eman beharko dizkiete.

Esparru honi dagokion guztian, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuko da.

#### 9.- Dokumentazioa

HGAGZek esku-hartze egokia egiteko beharrezkoa eta nahikoa den dokumentazioa izan beharko dute. Gutxienez, indarrean dagoen araudiak eskatzen duen dokumentazioa eduki beharko dute, bai eta arreta kalitate handiagoz ematea ahalbidetzen duen bestelakoa ere.

HGAGZek onuradun bakoitzaren banakako espedientea egingo dute, zaindu eta eguneratuta mantenduko dute. Espediente horrek gutxienez honako hauek jasoko ditu:

- Banakako fitxa, erabiltzailearen identifikazio datu pertsonalekin eta erreferentziako pertsonaren izen eta telefonoarekin.
- Arreta goiztiarreko banakako programa, gutxienez honako hauekin: esku-hartzearen programazioa, jarraipen ebaluazioak, profesionalen arteko koordinazioak, familiaren esku-hartzeak eta koordinazio bileretako aktak.
- Erabiltzaileari eta haren familiari arreta hobia emateko interesgarriak izan daitezkeen bestelako datuak.

HGAGZek GOFek horretarako gaitzen dituen esku-hartzeari lotutako prozedurak eta protokoloak erabiliko dituzte, hala eskatzen bada.

#### 10.- GOFeren jarraipena.

GOFek egokitzen jotzen badu itundutako HGAGZek egindako esku-hartzearen jarraipena egitea — beharrezkoa den koordinazioa eta lankidetzaren bermatzeko —, egoki deritzon jarraipen bilera batera deitu ahal izango du horretarako.



GOFEk, itun soziala gauzaten ari den edozein unetan, egokitzat jotzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango die itunpeko zentroi (egindako arreta, informazio ekonomikoa, estatistikoa eta abar), zerbitzuaren jarraipen eta prestazio egokia bermatzeko, eta hori gutzia arreta kalitate handiagoa lortzera bideratzeko.

Nolanahi ere, AGETek jarraipen txostena egingo du eta GOFeko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuko profesional taldeari bidaliko dio, gutxienez AGBTk programatutako aldizkako berrikuspena baino 15 egun natural lehenago. Berrikuspen horrek esku-hartzearen bilakaeraren eta emaitzen ebaluazio bateratua eta sistematikoa bermatuko du.

Gainera, AGETek osagarri gisa beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak bidali ahal izango dizkio GOFeko taldeari, zentroko esku-hartzean zehar haurraren, haren familiaren eta ingurunearen bilakaera modu zehatzean islatzeko. Horrela, ebaluazio prozesu dinamiko eta kolaboratiboa egin ahalko da.

## **25. oinarria.– Bertaratze, absentzia eta ordutegi-ez-betetzeen araubidea.**

1.- Esleitutako arreta goiztiarreko esku-hartze zentrorra joatea nahitaezkoa izango da kasu guztietan, salbu eta hori eragozten duten arrazoi justifikatuak badaude.

Betebehar hori ez betetzeak GOFeren arreta goiztiarreko HGAGZko plazari uko egitea ekarriko du, eta ondorioz, dagokion ordutegiari eta arreta egutegiari ere bai.

HGAGZak egoeraren berri emango dio GOFeri, eta hori kontuan hartuko da adingabearen berrikuspen hitzorduan. Era berean, hala badagokio, egoera udaletako Haur eta Familia Zerbitzuari edo dagokion organoari jakinaraztea baloratuko da.

2.- Absentziak justifikatutzat edo justifikatu gabekotzat joko dira.

Absentzia justifikatutzat joko da esku-hartzearen saiora ez joatea hitzordu medikoengatik, psikologikoengatik, hezkuntza arrazoiengatik, osasun arazoengatik edo bestelako arrazoiengatik. Ez joatearen arrazoia egiaztatzen duen dagokion dokumentua aurkeztu beharko da joaten den arreta goiztiarreko zentroan (adibidez: medikuaren ziurtagiria, ospitaleratze egiaztatzea, mediku hitzorduaren egiaztatzea eta abar).

Absentzia justifikatu gabekotzat joko da esku-hartzera ez joatea eta absentziaren justifikaziorik ez aurkeztea.

Esku-hartze planaren ez-betetzat joko dira aurreikusitako absentzien % 33 gainditzen duten justifikatu gabeko absentziak, 3 hilabeteko epean:

- Asteko 2 saio edo gehiagoko planetan, gehieneko muga % 33 izango da, hau da, 8 saiotan.
- Asteko saio 1eko planetan, gehieneko muga % 33 izango da, hau da, 4 saiotan.

3.- Ordutegi-ez-betetzat joko da ezarritako ordura justifikaziorik gabe ez joatea, baldin eta bost hitzordutan jarraian 15 minututik gorako atzerapena gertatzen bada, edo saioen % 33an 15 minutuko atzerapena gertatzen bada.



Erabiltzaileek ezin izango dituzte bi ordutegi proposamen baino gehiago baztertu hitzordu berari dagokionez. Hori gertatzen bada, HGAGZko plazari uko egiten diola ulertuko da, dagozkion jarduketak gorabehera

4. Oporraldiari dagokionez, adingabea arreta goiztiarreko zentrotik kanpo egon ahal izango da oporretan urtean 60 egun natural, gehienez, edo 2 hilabetez, betiere erreferentziazko arreta zentroari aurrez jakinarazita. Epe horren barruan, kontuan hartu beharko dira joaten den arreta goiztiarreko zentroa itxita egoten den egunak. Denbora-tarte hori gainditzeak ez-betetzea ekarriko du, eta horrek GOFeren arreta goiztiarreko HGAGZko plazari uko egitea eragingo du.

30 egun jarraian baino gehiago kanpoan egonez gero, aurrez idatzizko eskabidea aurkeztu beharko du (030 eredu) GOFEn, aurrez aurre edo erregistro elektronikoen bidez GOFeko arreta goiztiarreko taldeari, absentziaren datak adieraziz. Esku-hartze zentroari ere jakinaraziko dio, eta zentroak ez du haren arreta-egutegia eta ordutegia gorde beharko bera ez dagoen bitartean.

## **26. oinarria. – Baliabideak:**

1.- Itunpeko erakundeak zerbitzua edo prestazioa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren ekipo eta bitarteko osagarri guztiak jarri beharko ditu, programa-kontratuan hitzartutako epean. Nolanahi ere, ituntze prozedura honetan parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuan jasotakoak, eta haren aldeko esleipena egotea eragin dutenak aurkeztu beharko ditu.

2.- Zerbitzugintzari atxikitako langileak, 1:1 ratioan zehaztuko direnak (pertsona batek pertsona bat artatuko du), itunpeko erakundearen mendekoak izango dira bakar-bakarrik, eta hark baino ez ditu izango enplegatzaile izateari datxezkion eskubideak eta betebeharrak. Horretarako, betebeharrak hartuko ditu bere gain itunpeko erakundeak:

- Itunpeko erakundeak bakarrik edukiko du langileak hautatzeko ardura; titulazioaz eta esperientziaz eskatzen diren baldintzak betetzen diren langileak baino ezin izango ditu hautatu. Hautatzen dituen langileak programa-kontratuaren burutzapenari atxikitzen zaion lantaldean egongo dira. GOFek langileok aipatutako baldintzak betetzen dituzten egiaztatu ahal izango du.
- Itunpeko erakundeak ahaleginak egingo ditu lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta haren osaketan aldaketak unean unekoak izan daitezzen eta arrazoi justifikatuak izan ditzaten, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez asalatzeko. Ituna egiten duen Administrazioa informatuta eduki behar du beti.
- Itunpeko erakunde ororen berezko zuzentzeko boterea erabili behar du programa-kontratua burutzeko ardura daukan lantaldeko langileengan, benetan, eraginkortasunarekin eta etengabe. Zehazki, bere gain hartuko du soldata negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, langileen ordezkien baja hartu edo huts egiteko kasuetan, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, dagokionean kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne, lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina ahalmena erabiltzea, eta alderdi enplegatu eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik datozen eskubide eta betebeharrak guztiak.



- Itunpeko erakundeak bereziki zainduko du kontratua gauzatzeari atxikitako langileek euren jarduera orrietan programa-kontratuaren xede mugatutako jarduerari dagokienez betetako eginkizunetan muga gainditu gabe.
- Itunpeko erakundeak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko da, langileen plantillakoa; horren betebeharrerako batzuk honako hauek izango dira:
  - GOFeren aurrean itunpeko erakundearen solaskide jardutea, alde batetik itunpeko erakundearen eta programa-kontratuari atxikitako lantaldea osatzen duten langileen eta, bestetik, ituneko erakundearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua gauzatzeko dakartzan kontu guztiei dagokienez.
  - Lana programa-kontratua gauzatzeko ardura duten langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateari dagokionez behar diren lan aginduak eta jarraibideak ematea.
  - Lantaldea osatzen duten langileek esleituta dauzkaten eginkizunak zuzen betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura doazela kontrolatzea.
  - Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen opor araubidea antolatzea, horretarako itunpeko erakundeak GOFerekin era egokian koordinatu beharko du elkarri, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez asalatzeko.
  - GOFeri programa-kontratuaren gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaketan gertatutako aldaketa guztiak, unean unekoak nahiz iraunkorrak, jakinaraztea.
  - Pertsona onuradunaren senideak edo legezko ordezkariak sinatutako bertaratzeen erantzukizunpeko adierazpena entregatzea (IV. eranskina).

3.- Itunpeko erakundeek beharrezko txostenak bidaliko dituzte GOFek une bakoitzean haien eskura jartzen dituen tresna edo irtenbide teknologikoen bidez.

## **27. oinarria. – Kalitate estandarrak eta parametroak.**

1.- Hasierako txostena: esku-hartzearen programazioa jaso beharko du, helburuak eta horiek lortzeko garatuko diren esku-hartzeak zehaztuz. Esku-hartzea hasi eta gehienez 30 egun naturaleko epean aurkeztuko da.

2.- Jarraipen txostena: helburu bakoitzaren betetze mailaren ehunekoa eta lan proposamenak jaso beharko ditu. Berrikuspen hitzordu bakoitza baino 15 egun natural lehenago, gehienez, aurkeztuko da.

3.- Azken txostena: bakoitzaren betetze mailaren ehunekoa eta familiari bere ingurunean lan egiteko jarraibideak jaso beharko ditu. Esku-hartzea amaitu eta 15 egun naturaleko epean gehienez aurkeztuko da.

4.- Familiaren gogobetetze inkesta: urtero aurkeztuko dira inkestak (ikus 13.r) oinarria), familiak arreta goiztiarreko esku-hartze zentroarekin duen gogobetetze maila neurtzeko.

5.- Itunpeko zentro bakoitzak urtero txosten tekniko bat egingo du (urte natural bakoitzeko abenduaren 30 baino lehen), eta honako hauek jasoko ditu, gutxienez:



- a. Artatutako adingabeen kopurua, datuak sexuaren, jatorriaren eta adingabearen adinaren arabera bereizita.
- b. Esku-hartze mota bakoitzean egindako saio kopuru osoa.
- c. Hiru esku-hartze motak, bi edo bakarra jaso dituzten kasuen kopurua.
- d. Zerbitzuan alta eman zaien kasuen kopuru osoa, alta arrazoi desberdinei dagozkien kasuak bereizita.
- e. Familiak zentro bakoitzean jasotako zerbitzuarekiko duten gogobetetze mailaren emaitza orokorrak, gogobetetze inkestaren analisiaren arabera.
- f. Jasotako kexa, erreklamazio eta iradokizunen datuak. Zentroak egindako analisitik ateratako ondorioak eta hartzea proposatzen dituen neurriak.

## **IX. KAPITULUA. JARRAIPENA ETA KONTROLA**

### **28. oinarria. – Jarraipen, kontrol eta auditoretza prozedura eta mekanismoak**

Itun sozialaren bidez emandako zerbitzuak GOFeren kontrol, ikuskapen eta zehapen eginkizunen mende egongo dira, eta hark ahalmena izango du zerbitzuak lege honetan, sektoreko legerian eta aplikagarri zaien garapeneko araudian ezarritakora egokitzen direla egiaztatzeko.

Jarraipen eta kontrol prozedurak aldizkako ikuskapenak eta auditoretza tekniko nahiz administratiboak barne hartuko ditu, itun sozialak eragindako betebeharrak betetzen direla bermatzeko. GOFek gainbegiratzeko eta egiaztatzeko eskumena duen organoaren bidez jardungo du. Organo hori, langile tekniko eta juridiko espezializatuek osatuko dute, eta haien ardura izango da itun sozialean ezarritako betekizunen betetzea ebaluatzea eta atzemandako gorabehera edo ez-betetzeak ebaztea. Organo horrek beharrezko baliabideak izango ditu betetzen dela egiaztatzeko, besteak beste, dokumentazioaren berrikuspena, bertaratze bisitak, elkarrizketak eta bestelako auditoretza mekanismoak.

Ituna egiten duen administrazioak erakunde prestatzaileei emandako jarraibideak dagokion espedientean jasota utzi beharko dira, eta berehala bete beharrekoak izango dira, pertsonen segurtasunean edo itun sozialaren xede diren instalazioen, azpiegituren edo ondasunen osotasunean zuzenean eragiten dutenean.

### **29. oinarria. – Lanen jabetza.**

Egindako lanak, edozein fasetan egiten direla ere, GOFeren jabetzakoak izango dira eta, beraz, hark edozein unetan eska dezake prestazioen zati bat eman dakiola, baldin eta behin betiko lan programarekin bat badator eta lanak behar bezala egitea eragozten ez badu.

### **30. oinarria. – Lanen erantzukizuna.**

1.- Ituntzea oinarri hauetan ezartzen diren baldintzei zorrotz lotuta egin behar da, eta GOFek itunpeko erakundeari interpretazioaz ematen dizkion jarraibideekin bat etorritik.

2.- Itunpeko erakundea izango da garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazio nahiz zerbitzuen arduraduna, bai eta programa-kontratua gauzatzeko egindako omisioen, akatsen,



metodo desegokien edo ondorio okerren ondorioz Administrazioarentzat edo hirugarrenentzat sor daitezkeen ondorioen erantzule ere.

3.- Hirugarrenei egiten zaizkien kalteak bere kontura ordainduko ditu.

4.- Ituna egiten duen erakundeak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, administrazioa itunpeko erakundearekin solidarioki kopuruak ordaintzera kondenatuko balute, ordaindutako kopurua hari jasanaraziko zaio, eta horretarako administrazioak ordaindutako kopuruak osorik berreskuratu arte egoki eta komenigarriak diren ekintza administratibo eta judizial guztiak erabiltzeko aukera gordetzen du beretzat.

### **31. oinarria. – Kalteak eta galerak.**

Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo burutzapenean atzerapena gertatu eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharreko zehapenak ez baditu estaltzen ituna egiten duen Administrazioari egindako kalteak, horrek kalte-galeren ordaina eskatuko dio itunpeko erakundeari.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehenengoa.- Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztia Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan eta Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako itun sozialen araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuan ezarritakoaren arabera arautuko da, bai eta aplikatzekoa den gainerako araudiaren eta GOFeko arlo eskudunak onetsitako jarraibide eta protokoloen arabera ere.

Bigarrena.- Ituna egiten duen administrazioak honako prerrogatiba hauek ditu: programa-kontratuak interpretatzea, kontratuak betetzean sortzen diren zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiengatik kontratuak aldatzea, programa-kontratua gauzatzearen ondorioz itunpeko erakundeari egotz dakioken erantzukizuna deklaratzeko, kontratua suntsiaraztea erabakitzea, eta suntsiaraztearen ondorioak zehaztea.

Halaber, ituna egiten duen administrazioak itunpeko erakundeek kontratua burutu bitartean egindako jarduerak ikuskatzeko eskumenak dauzka, lege horrek ezarritako baldintzetan eta mugen barruan.

GOFEk kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatuta ematen dituen erabakiak berehala bete behar dira.